



ARGIA

**ESPAINIAKO
HAUTESKUNDE OROKORRAK**

Geldiarazi da eskuin muturra, oraingoz

— EAJ-PSE aliantza
indartuta atera da

— Independentismoa
sendotasunez Katalunian

— Podemos kolpatua,
EH Bildu pozarren

#2.642 | 2019/05/05 | 3,90 €



**Familia aitorpen bat
zibilizazio krisiaren
adibide**

10 | NET HURBIL



**Ertzetako
biolentziak euskal
gatazk(et)an**

32 | FEMINISMOA



**"Idaztean ez badugu
arriskurik hartzen,
hobe etxean geratu"**

40 | BEÑAT SARASOLA



Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIA

AZALEKO ARGAZKIA:
JUANJO MARTIN / EFE

Iritziak

- 17 | ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN
- 18 | JUNE FERNÁNDEZ
- 19 | IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA
- 19 | ITXARO BORDA
- 20 | JAKES BORTAIRU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 36 | BIZI BARATZEA
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
- VÉRONIQUE LEDUC
- 54 | BERANDUEGI

32 | ERTZETAKO BIOLENTZIAK EUSKAL GATAZK(ET)AN

Maidar Galardi F. Agirre kazetari eta ikerlariak orain arte ikusezin izandako emakumei eman nahi izan die ahotsa. Ikerketaren izenburuak ongi kokatzen du hausnarketa: *1980-90eko hamarkadetan senide eta lagunak gatazkaren erdigunean izan zituzten andreen memoriaren eta praktika erresistenteen bilketa feminista*. Ane Labakak egin du erreportajea.



FOKU / IÑIGO URIZ

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Gurasoen etxea saldu behar: petrolio merkeak oparitu, haren agortzeak eraman

Pello Zubiria Kamino

12 | JORGE LUIS GARCÍA VÁZQUEZ

"Giza eskubideen aldeko ekintzaileak ez du kolore politikorik"

Miel A. Elustondo

22 | II. HEZKIDETZA PLANA

101 ikastetxe betaurreko moreak janzteko prest

Malen Aldalur Azpillaga

28 | POLIMAITASUNA

Pozen atzeko minak eta arriskuak

Z. Oleaga

30 | IKERGAZTE EGITASMOA

"Euskara beste hizkuntzen parekoa da, baita ikerkuntzan ere"

Gorka Peñagarikano

40 | BEÑAT SARASOLA

"Ditugun konbikzioak zalantzan jartzeko balio dezakete nobelek, ez tesiak egiteko"

Gorka Bereziartua Mitxelena

44 | KULTURA

Bidez bide, oraindik ere

Itxaro Borda

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Bego Zuza

Erredakzioa

Amalia Fernández, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Elizaguirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa:

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdí, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da
Argia honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)



Mundua, larrialdi egoeran

Azken urteetan Britainia Handian ikusi den desobedientzia zibil ekintzarik handiena bizi du asteotan Londresek. Arrazoa: pasa den urte bukean klima aldaketaren aurka neurriak aldarrikatzeko jaio zen Extinction Rebellion mugimendua. Mila lagun baino gehiago atxilotu ditu Erresuma Batuko poliziak protestetan. Denbora agortzen ari da eta matxinatu egin dira herritarrak. Eskola-grebak abiatu zituen 15 urteko Greta Thunberg suediararen hitzetan, "sistema aldatu beharra daukagu, krisian gaude eta. Eta berehala hasi behar dugu. Gerra baletorkigu bezala".





MAROTO MAITEA, 15 EGUN
DITUZU LANGABEZIA ESKATZEKO.
BESTELA GIZARTE PRESTAZIORIK
GABE GERA ZAITEZKE ETA
MADRILEN BIZITZEN DARAMAZUN
DENBORA KONTUAN
HARTUTA, AGIAN EZIN DUZU
DIRU-SARRERAK BERMATZEKO
ERRENTA ESKATU

@Zuri0



NORBERAREN EMAITZEN
ARDURA NORBERARENA DA.
BAINA ERRAZAGOA DA BETI
ERRUA BESTEEI BOTATZEA

@lkertb



VOXEK DIO GERATZEKO ETORRI
DELA... IZAN DADILA TXOKO
BATEAN GERATZEKO, ONGI
ISOLATUTA, ETA BATEZ ERE EZ
DEZATELA AGENDA MARKATU
LE PENEK GAI ASKOTAN LORTU
DUEN MODUAN

@XMadariagal



[BOZKATZERA] DATOZENEN
%50AK EZ DAKI SENATUKOAK
NOLA FUNTZIONATZEN DUEN.
%25AK EZ DAKI SENATUA
ZER DEN. LOTSAGARRIA
DA BOZKATZEN DUTENEN
ARTEAN HALA EGOTEA.
PARLAMENTARISMOAN EZ
DUTE EZTA BERTAN DAUDENEN
SINESTEN? ALA PROPIO DAGO
HALAKO ANALFABETISMOA?

@hedoi_etxarte



KUKUA BETI KUKU: BIHAR
ERE KAPITALISMO KRUEDEAK
JENDEAREN BIZITZA
XURGATZEN JARRAITUKO DU.
ALDAKETA HANDIAGOAK BEHAR
DITUGU. ERROTIGOAK

@kapearantza



EAJ

Madriren ere erabaki nahi dugu

XABIER LETONA

Eskuin muturrak ez du gobernu neofrankistarik ekarri Espainiako Estatura. Euskal Herritik begiratuta ere, hori da hauteskunde hauetatik atera litekeen ondorioarik nabarmenena. Are gehiago, eskuma hori gero eta txikiagoa da Hego Euskal Herrian, eta Nafarroan bakarrik lortu du ordezkartza, baina botoetan atzera eginez. Parte-hartzearen hamar puntuko igoeraren klabe nagusia beldur horretan oinarritu da.

Hego Euskal Herriko emaitzetan nabarmenena EAJren, PSOEren eta EH Bilduren igoerak dira, eta batez ere lehenbiziko biera. EAJk marka hautsi du, Espainiako hauteskunde orokor batzuetan halako igoera erdietsita. Bere diputatuak Madriren erabakigarriak direla saldu du –hainbatetan hala gertatu da, bai PSOEren baita PPren gobernuak ahalbidetuz– eta herritarrek sinetsi egin diote, areago orain boto horiek eskuin muturrari aurre egiteko izan bazitezkeen. Baina EH Bilduren boto emaleek ere berdintsu sinetsi dute euren bozkak erabakigarriak izan daitezkeela, are gehiago PPren aurkako zentsura mozioarekin gertatu dena ikusita.

Gobernagarritasunari begira, Madriren bere bidea egingo du Pedro Sánchez, baina euskal lurretan argi geratu da EAJ-PSE bikotearen sendotasuna. Identitate gaiek aliantza zirikatzen ez badute –erabaki eskubidea edo gisakoekin, adibidez– luzerako erromantzea izan dezakete. Oraingo ez dirudi EH Bilduk eta galera itzela izan duen Podemosek asko ikaratzen dutenik jeltzale eta sozialisten jardun eroso.

Emaitza hauek maiatzeko udal eta foru hauteskundeetako txanpa ere izan daitezke. Oso bestelakoak izango dira, baina orain ondo kokatuta egoteak lagunduko du hurrengoetan ere emaitza onak izatea, eta alderantziz. Alde horretatik, Nafarroak garrantzi berezia izango du, 2015eko aldaketa berrestea baitago jokoan. Horretarako abiapuntua ez da txarra. Lehia oso estua izango da, hori seguru, baina Navarra Sumak ez du ezer gehitu, alderantziz, eta hori bera ez da datu txarra. Arriskurik handiena da UPNk eta PSNk gehiengo osoa lortzea, eta oraingo emaitzek ahalbidetuko lukete hori. Ez da hain samurra izango Espainian zartakoka ari direnek Nafarroan *corralitoa* berpiztea, baina ez da komeni *espainiar batasuna*-ren indarra gutxiestea.

GAIZKI ERRANKA

Herensugeak eta ibiltari zuriak



SANTI LEONÉ

Barka diezadatela *Tronu joko*a oraindik ikusi ez edota sekulan ikusteko asmorik ez duten guziek, baina telesail horren inoiz baino antz handiagoa izan du Espainiako huteskunde kanpainak. Ez bakarrik, Joseba Gabilondok erranen lukeen bezala, alderdien arteko lehiak serieko neomediebalismoa islatu duelako –eliteak beren tropelak mugiarazten, beren interesak defendatzeko asmoz–, baita kanpainako protagonistak ekialdeko herensugeak eta iparraldeko ibiltari zuriak izan direlako ere. Erran nahi baita, fikziozko mamuak izan direlako eztabaidagai nagusiak, fikziozko mehatxuak, baina herritar anitzengan egiazko izua sortzen dutenak: heldu dira ETaren lagunak, heldu dira Espainia hautsi nahi dutenak, heldu dira diktadura komunista baten azpian menderatu nahi gaituztenak.

Nafarroatik atera behar izan gabe ere, eskuin unionistako hautagaiak, Sergio Sayasek, ezin argiago erran du: nazionalismoa –euskalduna eta katalana, erran gabe doa– da Espainiak duen problema larriena. Ez ustelkeria, ez langabezia, ez askatasun falta, ez zorra. Nazionalismoa. Eta irabaziz gero nazionalistek egin litzaketen balizko izugarrikeriek balio dute gertatzen ari diren egiazko izugarrikeriak estaltzeko.

Gorpuzkera sendoagoko fantasma baten kontra joan dira bozkatzera hautesle anitz, faxismoaren fantasmaren kontra hain zuzen. Ikusteko dago orain boto gehien erdietsi dituen alderdiak zer egingen duen. Ezker aldera –pixka bat– lerratuko da? Edo herensugeen eta ibiltari zurien aitzinean Espainiako batasunaren mamua inarrosi eta, konstituzioa eskuan duela, bazkide moderatu baten beharra aldarrikatuko du? Ferraz karrikako egoitzan, “Riverarekin ez” egiten zuten oihu PSOEko hautesleek; gaueko irabazlearen arrapostua berehala etorri zen: “Guk ez dugu marra gorriarik jartzen”. Argiago ezin. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

“MEZU GARBIA BIDALI DIEGU EUROPARI ETA MUNDUARI”

GABRIEL RUFIAN, ERC-REN DIPUTATUA ESPAINIAKO KONGRESUAN

Esquerra Republicana lehenengo indarra izan da Katalunian. “Dena aldatu behar duen legegintzaldi ziklo berri baten lehen urratsa da. Mezu garbia bidali diegu Europari eta munduari. Liderrak preso dituzten errepublikarzaileek ez dute hutsik egin. Galdera ez da Esquerrak zer egingo duen PSOErekin, baizik eta zer egingo duen PSOEK Kataluniarekin. Indar guztiak barne hartuko dituen elkarriketa mahaia eskatuko dugu guk, erreferendumaz eta independentisten aurkako kausak ezabatuko dituzten legeez hitz egiteko”. 2019/04/29



EKONOMIAREN TALAIAN

Hitz emandakoa bete, eta betearazi



JUAN MARI ARREGI

Azkenaldian, alderdiek eta gobernuak hauteskunde egoeran murgildu dituzte herritarrak, eta haien botoaren bila, promesaz beteriko hauteskunde programak haizatu dituzte. Ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik begiratuta, gauza asko eta oso anitzak hitzeman dituzte, zenbait alderdiren kasuan bat egiten dute gainera neurriak proposatzerakoan.

Labur esateko, besteak beste hauek aipa daitezke: 900 euro baina gehiagoko gutxieneko soldata; emakume eta gizonezkoen artean soldata berdintasuna; 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta KPIaren arabeko urteroko igoera; behin betiko lan-kontratu finkoak, orain arteko prekarietate eta behin-behinekotasuna albo batera utziaz; gehiengo sozialari mesede egingo dion zerga-erreformak, tasak igoz aberatsei, sozietateei, bankuei, multinazionalari eta finantza eragiketei; menpekotasunean, osasungintzan eta hezkuntzan inbertitu; euskal enpresak babestea deslokalizazio eta deuseztatzea saihestuz (La Naval, Euskaltel...); migratzaileei harrera egiteko politikak bultzatu...

Hauteskundeetako promesen faisa igaro da eta hemendik aurrera hitz emandakoa bete behar da. Horretarako, ardura ez da soilik botoa eman diogun alderdi politikoarengan jarri behar: botoa eman duen pertsona bakoitzak ere badu ardurarik. Batzuek, alderdi zein gobernuak, promesak bete beharko dituzte, baina herritarron esku dago horiek betearaztea. Modu asko daude, salaketatik hasi eta mobilizazioek eragiten duten presioraino. Hitza jaten duten ala ez zaindu beharko genuke, eta hala gertatuz gero, hurrengo hauteskundeetan ordainarazi. Horrela behar luke, hitz emandakoa bete bai, baina betearazi ere bai, gaurtik hasita. ●

ANALISIA



PSOE

Laranja bat jaten baduzu imintziorik egin gabe

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Spainiar politika ez da *Borgen*-ekoa: 2010ean Danimarkan estreinatu zuten telesail horren hasieran gobernuak osatzeko pakto oso korapilatsua lortzen du protagonistaren alderdi moderatuak laboristekin eta ekologistekin, parlamentuko beste bi indarrek kanpotik babestuta. Kapitulu kapitulu istorioa animatzen duten intriga ugari pizten ditu Birgitte Nyborg lehen ministroaren akordio premiak, bost partidu diferenterekin *non-stop* negoziatzen ari den legegintzaldi batean murgiltzea baitu gobernatzeko aukera bakarra.

Spainian gauzak ez dira *Borgen*-en bezala egiten. Pablo Iglesiasek badaki. Aitor Estebanek ere bai. Hauteskunde gaueko bien aurpegi goibelek esplikazio erraza dute kalkulagailua pixka bat mailukatuz gero: PSOEri zenbakiak ematen diote Ciudadanosekin gobernuak osatzeko eta pakto danimarkarren zailtasunak alde batera uzteko. Unidas Podemos eta EAJ beste telesail batean murgilduko lituzke horrek: *Compuesta y sin novio*, starring Lina Morgan.

PSOErena esplikatzeak hain konbentzionala ez den zerbait eskatzen du: *Les revenants*, hildakoak berragertzen diren serie frantziar durduzagarria. Apirilaren 28ko emaitzek hori frogatzen baitute, PSOE itzuli dela, uxatu dituela PASOKen tragedia greziarrak sozialdemokrazia europar guztiari ikusarazi zizkion mamuak.

Baina *Les revenants* ikusten ari zarenean bezala, ez da komeni larregi fidatzea, izan ere, Sánchezen garaipenak badu testuingurua eta baditu babesle ofizialak. Testuingurua: faxismoaren itzuleraren beldurrez bozkatu da, Frantziako Estatuan Le Penen aurka Macron hautatu zutenean bezala. Horrek PSOEren erabiltzaile bihurtu ditu boto-emaila ezkertiar asko. Horrek M15aren lurrinen bat eraman du Ferrazeko ospakizunetara hauteskunde gauean bertan. Babesleak: *Financial Times*, *The Economist*, Europako Batzordea eta Europako Banku Zentrala, besteak beste, Sánchezen alde agertu ziren kanpainako azken astean. Boto-emaila ezkertiar batzuek bakarrik ez, kapital handiek ere PSOErekin bidaiatzen dute.

Testuinguruak ala babesleek aginduko dute gobernuak norekin osatu? Erabakia telesail etako erritmorik gabe har daiteke, hilabete barruko bozak kapitalizatu ondoren. Gero ipuinen ordua izango da: *Limo bat imintziorik egin gabe jaten baduzu* izeneko liburu bat dago Txalaparta argitaletxearen katalogoan, Sergi Pàmies kataluniarra idatzia. Zitrikoaren izena aldatuta, hemen ia dena kontatuta gera daiteke. ●

DATUTAN

ESPAINIAKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK

Bizkaia



ALDERDIAK	2019	2016	
EAJ	235.322	175.296	3 (2)
PSE-EE	136.037	86.425	2 (1)
Elkarrekin-Podemos*	121.228	179.347	2 (3)
EH Bildu	91.612	67.653	1 (1)
PP	49.601	78.965	0 (1)
Ciudadanos	21.201	20.680	0 (0)
Vox	15.792	641	0 (0)
PACMA	6.150	4.865	0 (0)

Araba



ALDERDIAK	2019	2016	
EAJ	40.199	26.703	1 (1)
PSE-EE	39.595	26.381	1 (1)
Elkarrekin-Podemos*	31.346	51.827	1 (1)
EH Bildu	24.687	15.858	1 (0)
PP	24.304	34.276	0 (1)
Ciudadanos	7.039	8.372	0 (0)
Vox	5.587	306	0 (0)
PACMA	1.863	1.657	0 (0)

Gipuzkoa



ALDERDIAK	2019	2016	
EAJ	119.106	85.015	2 (2)
EH Bildu	95.901	69.828	2 (1)
PSE-EE	77.128	51.449	1 (1)
Elkarrekin-Podemos*	70.671	104.566	1 (2)
PP	20.613	35.312	0 (0)
Ciudadanos	11.723	11.683	0 (0)
Vox	6.683	(-)	0 (0)
PACMA	3.145	2.788	0 (0)

Nafarroa




ALDERDIAK	2019	2016	
Navarra Suma**	107.124	127.481	2 (2)
PSOE	94.094	58.173	1 (2)
Unidas Podemos*	68.168	94.972	1 (2)
EH Bildu	46.640	31.374	0 (0)
Geroa Bai	22.150	14.289	0 (0)
Vox	17.660	(-)	0 (0)
PACMA	3.289	2.797	0 (0)
Recortes Cero	1.284	1.089	0 (0)

* Podemos, IU, Equo (Nafarroan Batzarre ere bai)

** UPN, PP, Ciudadanos (2016an UPN eta PP soilik)

ESPAINIAKO DIPUTATUEN KONGRESUA



ALDERDIAK	2019	2016
PSOE	123 (+38)	85
PP	66 (-71)	137
Ciudadanos	57 (+25)	32
Unidas Podemos	43 (-28)	71
Vox	24 (+24)	(-)
ERC	15 (+6)	9
JxCAT***	7 (-1)	8
EAJ	6 (+1)	5
EH Bildu	4 (+2)	2
Navarra Suma	2	2
Coalición Canaria	2 (+1)	1
Compromís	1 (+1)	(-)
PRC	1 (+1)	(-)

*** 2016an CDC izenarekin aurkeztu zen

%75,02

PARTE-HARTZEA

%75,02 izan da parte-hartzea Hego Euskal Herrian Espainia-ko Kongresurako, azken urteetako handiena. Gipuzkoan 10,8 puntu igo da 2016tik, Bizkaian +9,5, Nafarroan +8,6 eta Araban +4,6. Nafarroako parte-hartzeak (%76,2) Estatu mailakoa gainditu du (%75,75). Parte-hartze eta igoera handiena, ordea, Katalunian gertatu da: %77,58 (+14,16).



SENATUA

EAJ 9 senatari lortu ditu Hego Euskal Herrian, 2016an baina 5 gehiago; PSOE-PSEk 3 senatari mantendu ditu, Navarra Suma bezala; EH Bilduk senatari bat lortu du; eta Elkarrekin Podemos 7 ordezkari bakarrari eutsi dio. Lurralde bakoitzeko lau senatari aukeratzeko sistema nominala –boto gehien dituen arabera–, alderdi bakoitzetik gehienez hiru. EAJ hiru probintziatan izan da garaile, hortik aldea.



ADIMEN URRITASUNA

Lehen aldiz bozkatu ahal izan dute adimen urritasuna duten pertsonak, 2018ko abendu-ko hauteskunde legearen erreformari esker. Hego Euskal Herrian 8.000 lagun inguruk erabili ahal izan dute sufragio eskubidea gainerako herritarrek bezala; Espainiako Estatuan 100.000 izan dira.

GURASOEN ETXEA SALDU BEHAR: PETROLIO MERKEAK OPARITUA, HAREN AGORTZEAK ERAMAN

Batetik klimaren aldaketa –kutsadura industrialaren ondorioz–, bestetik natur baliabideen eta erregai fosilen agortzearen hasiera, zibilizazio industrialak krisi sistemikoan sartuta hondoratzen hasia dela? Hori argudiatzeko makro mailako datuetara jotzen dute aditu batzuek. Aldiz, Ugo Bardi irakasleak familiako aitorpen batekin azaldu du. Italian bezala Euskal Herrian erregai fosilen zikloak ekarri zuen aberastasuna, zikloaren amaierak sartu gaitu estutasunetan.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Ugo Bardi ezaguna du ARGIAren irakurleak, 2015ean *Larrun* batek bildu zuen haren “*Zerk hondoratu gaitzake Erromatar inperioa bezala?*”. Bardi italiarra da, kimikako irakaslea Florentziako unibertsitatean, aditua da sistemen dinamikan, petrolioaren gailurraz eta lehengaien ustiaketaz zenbait liburu idatzia. Guk euskaratutako ‘*Peak Civilisation: The Fall of the Roman Empire*’ hartan kontatzen zuen nola V. mendean jo zuen hondoa Grezian eta Erromako Inperioan mamitutako zibilizazioak, XXI. ean zibilizazio industrialak jasaten ari den krisiarekin erkatuz.

Analisi hartan zioen Bardik: “Erromatarrek berek ulertu ote zuten zer ari zitzaien gertatzen? (...) Historialari erromatarren testu ugari dauzkagu, baina inork ez zuen, antza, ulertu zer zihoan gertatzera”. Alegia, ipuin zaharreko igelaren antzera goazela gu ere pertzako ur gero eta beroagora ohituz ohartu gabe handik ez irtetekotan egozita hil behar dugula. Aldiz, sistemaren kolapsoaren sintomak egunero soma ditzakegu inguruan.

Ugo Bardiri sintoma horietako batek familian egin dio eztanda eta bere *The Cassandra's legacy* blogean aitortu du: “*Italia pobretuz – Italian pobretuz. Petrolioaren aroaren ilunabarraren eraginak*”. Gurasoek eraiki zuten eta Ugorenztako 50 urte baino gehiagoz bizilekua izan den etxea saldu behar izan du, haren gastuak pagatu ezin dituelako.

Ez gaizki pentsatu: Bardi doktorea ez da miserian amildu, unibertsitate publiko bateko irakaslea da, emazteak ere lan egiten du, hitzaldiak ematera gonbidatzen dute mundu osotik, krisiari aurre ondo egin dion klase ertaineko kideztat dauka bere burua eta hala ere “abertasuna eta pobrezia pertzepzio erlatiboak dira eta nire irudipena da urtetik urtera pobreagoa naizela, italiar gehienak bezala”. Barne Produktu Gordina eta beste indizeek esango dute nahi dutena aberastasunaz, baina irakaslea behartuta aurkitu da saltzera gurasoek 60ko hamarkadan Florentzia inguruko muiño batean eraikitako etxea. Italiarraren kontakizunaren antzekoak hasiak gara entzuten Euskal Herrian ere.

50eko eta 60ko hamarkadetan Italiak *mirari ekonomikoa* bizi izan zuen, mundu osoan petrolio merkeak eragindako beroaldiaren barruan. Gerra pasatu berrian hasi ziren zabaltzen auto pribatuak, osasun zerbitzuak denentzako, oporraldiak itsas bazterrean, nork bere etxebizitza erosi ahal izatea, eta abar.

Ugoren aita eta ama biak ziren arkitetoak eta unibertsitateko irakasleak eta 60ko hamarkadan eraiki ahal izan zuten beren ametsetako etxea, denetara 300 metro karratu, material onez egina, lorategi eder batekin, AEBek zabaldutako modari jarraiki hiriburuko klase ertaina kokatuz zihoan herritxo polit batean, Florentzia ederra leiho parean.

Gurasoak han zahartu eta hil ziren. Ugok 2012an heredatu zuen eta ba-

rruan zenbait konponketa egin beharraz jabetu ziren, ez ziren alferrik pasatu 50 urte. Emaztea eta biek ekin zioten: teilatu konpondu, negutegia zaharberritu, egon-gela egokitu... “baina bi urteren buruan elkarri begira jarri eta esan genuen: ‘Alferrik ari gara’”.

Atontze lanetan diru puska bat sartuta gero ohartu ziren etxe eder hura handiegia zitzaiela. Hasteko, beroketa eta aire egokitu garestiak behar zituen, Florentzian ere klimaren berotzeak aire egokitu beharra derrigorrezkoa egiten du gaur, 1960an ez bezala. “Gero dago garraioaren kostea, eta hilgarria da. Amerikar estiloko aldirietan kotxe pribatuak behar dituzu; 1960an normala zirudien, baina gaur inola ere ez, autoak izugarri garestiak dira, trafiko pilaketak edonon, desastre. Eta ez ahaztu zergak: hauek ere zama jasan ezina bilakatu dira ziztu bizian”.

ERREGAI FOSILEN ZIKLOA ETA NIRE FAMILIA

Etxea salgai jarritakoan, beste ezustekoa: hiritik aparte dauden txaleten prezioek ere behera egin dute nabarmen. Saltzea lortu dute, hala ere, eta Barditarrak etxeko puskak oro bildu eta eramaten ari dira, mende erdiko bizitzan pilatutako oroigarrien artean zeini heldu eta zein bota erabakitzeke lan mingarrian. Ez errukitu, ordea, Barditarrez, aski diru baitute Florentziako auzo batean etxetxo polit bat erosteko, lorategi eta guzti. Orain autoari uko egiten ere saiaturiko dira. Ziurrenik, aitortu du pe-



KLASE ERTAINEKO

ETXEBIZITZA ATSEGINA FLORENTZIA
INGURUAN, ONGIZATEAREN
HAINBAT OSAGAI BEREKIN
DAUZKANA: ZABALA, INGURU
EDERREAN, LORATEGI ETA GUZTI...

trolioaren gailurrean adituak, beren larrian ari dira bizitzen hein batean zer den deshazkundera.

“Harrigarria da nola aldatu diren gauzak 50 urteotan. Teorian, unibertsitateko irakasle izanik gehiago irabazten dut irakasle ziren nire gurasoek baino. Emazteak ere soldata on bat dauka. Baina inolaz ere ezingo genuke amestu gurasoengandik heredatutakoa bezalako etxe bat eraiki edo erosterik. Aldaketa sakona gertatu da Italiako gizartearen muinean eta aldaketak izena dauka: petrolioaren aroaren ilunabarra. Aberastasuna eta energia txanpon beraren bi aurpegiak dira: energia eskuragarri gutxiagorekin, italiarrek gaur ezin dute pagatu duela 50 urte paga zezaketena”.


Baina energiaren murriztea egon arren gaurko gatazken sustraian, badi-rudi ezin dela horretaz hitz egin ezta-

baida publikoetan. Ondorioz, herritar gehienek ez dute ulertzen gertatzen ari zaiena, baina ohartzen dira bizimodua zailtzen ari zaiela etengabe, telebistetatik bestelakoak kontatzen dizkieten arren. Ondorioz, beste edozerri egozten diote errua, Europari, Angela Merkeli, politikariei, etorkinei, ijitoei, kanpotarrei oro har. Horrela doaz puztuz arrazismoa, gorrotoa, faxismoa, txirotasuna, aberatsen aberastasuna... “Normala da, lehen ere gertatu izan da, egun batean gauzak hobetuko dira, pasako dira, baina beldur naiz ez dela laster izango”.

Duela bi urte blogean Ugo Bardik kontatu zituen bere familiaren azken bi mendeak: *“Erregai fosilen zikloa eta nire familiaren historia”*. Hori irakurtzen duen euskaldunak bere sendia eta herria aurkituko ditu islatuak: Toskanan ere gure arbasoak bezain xume bizi

ziren, asko emigraziora kondenatuta, harik eta Europatik iritsi zitzaizen arte industria, Britainia Handian abiatutako ikatzaren eta baporearen iraultzaren uberan, duela mende bateko deslokaziora haizetan. Hala hasi zitzaizen eta zitzaigun oparotasun garai hau, nekazari maizterrak estraina bihurtuta industriako obrero, berrikitan zerbitzuen ekonomia deitzen duten hau bilakatu arte. Eta antzera harrapatu gaitu batzuk eta besteak azken krisitzarrak.

“Gure aurreko barditarrak ez ziren aberatsak, gehienak obrero xumeak ziren, batzuk benetan pobreak. Petrolioaren urrezko aroak eta ez beste ezerk baimendu zien batzuei etxe eder bat eraikitzea muino batean. Nahiko nuke nire ondorengoek hemen jarraitzea”. Ahal izango duten ez da gauza segurua, ez Toskanan, ez Goierrin. ●



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com





GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO EKINTZAILEAK EZ DU KOLORE POLITIKORIK



Kubako xoriak ez zuen Kubara nahi. Berlingen zela ihes egiten saiatu zenean, zepoan harrapatu eta kaiolara. Lehenik, Berlingen bertan. Ondoren, Habanako Villa Maristasen. Gero, desterrua. Kubako xoria Berlingen da orain, Kubara nahi, libre, baina gobernuak ez uzten. Euskal Herrira egindako bidaian harrapatu dugu.

 MIEL A. ELUSTONDO
 ZALDI ERO

Disidente omen zaitugu.

Ez zait hitz hori gustatzen. Ni, izan, opositore politikoa naiz, giza eskubideen aldeko ekintzailea. Aktibista. Habanan sortua naiz, 1959an, zero orduan, iraultzak garaitu zuenean, Fidel Castro boterera iritsi eta iraultza amaitu zenean. Batzuek zioten iraultzarekin sortu nintzela, eta, hazi, berriz, diktadurarekin hazi nintzela.

Aurreko diktadura ezagutu gabe, hala ere.

Bai. Dena den, gurasoek Batistaren diktaduraren berri eman zidaten. Jakinaren gainean nengoen, zer izan zen aurreko hura. Batistaren erregimenak arbuioa sortzen zuen Kubako gehienek artean, eta gure familiakoen artean ere bai. Castrok, aldiz, herriaren sostengua izan

zuen, hasiera-hasieratik. Kontrakoa esatea gezurra litzateke. Estatubatuarrak berek ere ez zuten Batista nahi. Inork ez zuen Batista nahi, haren txarkeria eta ustelkeriagatik. Konponbide demokratikoa zen helburua, eta Castrok, orduan, 1940ko konstituzioa berrezarriko zuela agindu zuen, Batistak ezeztatu zuena, alegia. Castrok, baina, 1976 arte ez zuen konstituzioa berrezarri. Bitartean, dekretu bidez gobernatu zuen. Castroren egoak iraultza akabatu zuen.

Oraindik orain, konstituzioa berritu dute Kuban.


1976ko gezurraren bigarren atala duzu. Fartsa hutsa. Kubatarren eskubideak manipulatzeko dituzte. Konstituzio batek, zeinahi dela ere, ez du alderdi politiko jakin baten interesak defenditzerik.

Zergatik, orduan, Kubarekiko miresmena, internazionalisten laguntza, elkartasuna eta gainerakoak?

AEBei aurre egiteak jarraitzaile sutsuak sortu ohi ditu. Are gehiago, garai hartan, 1960an. Ordukoak dira Vietnamgo gerra, eskuineko hainbat diktadura erortzea –hein batean AEBek lagundutakoak–, AEBen nazioarteko politika tamalgarria... Tamaina horretako etsaiari kontra egiteak arrakasta zekarren.

Iraultzarekin jaioa zaitugu, zein oroitzaipen dituzu garai hartaz?

Zoriontsu bizi nintzen. Iraultzaileen artean, neska-mutikoak libertitu egiten ginen. Pilota hartu eta jolas egiten genuen. Etxe-atarietako txirrinarak jo eta okerkerian jarduten genuen. Han-he-mengo neska-mutikoek egin ohi dute-



Jorge Luis García Vázquez

MANTILLA, KUBA, 1959



Kuban jaio arren, aleman hiritartasuna du. Berlinen bizi da. Itzultzaile eta ikertzaile da, Askapenerako Kristau Mugimenduko kide, giza eskubideen aldeko ekintzaile, Kubako oraingo erregimenaren kontrako opositore. Stasi-Minint bloga zuzentzen du, non garai bateko Alemaniako Errepublika Demokratikoko inteligentzia zerbitzu Stasi siren agiriak argitaratu ohi dituen.

na egiten genuen. Bagenekien eskasia zegoela, arropa gutxi genuen, baina ez ginen erabat pobre bizi. Jateko gutxi genuen, baina ez amerikarren bahimenduagatik, herrialdean bertan gauzarik txikienak ekoizteko gai ez ginelako baidizik. Dena “nazionalizatu” zuten, dirua ematen zuten industria guztiak, enpresak, negozioak... Krisi garai latza izan zen. Baina pobrezia eta miseria guztiak gorabehera, haurrak hazi egin ohi dira, eta gu ere hazi egin ginen, hezkuntza sistemako ideologia marxista-leninista eta kastrista hartan.

Noiz jabetu zinen egoeraz?

1980an Kubako sistema diktatoriala eta basatia zela jabetu nintzen. Urte hartan, kubatar asko Peruko enbaxadara sartu ziren. Beste askok, berriz, Arieleko portutik ihes egin zuten. Nik, berriz, nire auzoak, ezagunak, lagunak, kideak... alde egiten ari zirenei tu egiten ikusi nituen; gobernuak berotuta, jakina. “Escorias” (zaborra) izena eman zitzaizkien... Orduantxe konturatu nintzen. Arbuioa zen. Jendea ikusi nuen, etxean ezkutatuta, atarian jendea zain, patata ustelak botaka. Desengainu galanta hartu nuen. Aurretik ere banekien sistemak ez zuela funtzionatzen, baina neure begiez ikusi nuenean, entzundakoak, ikasitakoak, irakurritakoak etorri zitzaizkidan gogora, eta diktaduran ginelako ohartu nintzen.

Garai bateko Alemaniako Errepublika Demokratikoan, “Ekialdeko Alemanian” izan zinen gero.

Alemana ikasi nuen Habanako hizkuntz eskola batean. Gero, itzultzaile jardun nuen Kuban bertan, baina ez luzaro, inteligentzia zerbitzuarentzako lan egitera eraman baininduten Berlinera. Kubako ofizialek ez zekiten alemanez, eta itzultzaile jardun nuen nik han. Agiriak itzultzea ere egokitu zitzaidan, baina ez nintzen espioi. Ekialdeko Alemanian nengoela, inguruko hainbat herrialdetan izan nintzen: Hungarian, Txekiar Errepublikan, Bulgarian, Sobietar Batasunean, Polonian... Eta han ere Kubako gauza bera ikusi nuen, jendeak ez zuela sisteman sinesten, sistema totalitarioa zela, erreforma batzuk gorabehera. Inork ez zuen sistema hura nahi. Esate baterako, erabat desengainatu nintzen Moskun, 1986an, ekonomiaren egoera ikusi nuenean, zeharo suntsituta baitzegoen! Suziriak, hegazkinak eta armadarik indartsuena zituzten, baina elikagaiak, kontsumoa, administrazioa... pekoz gora zeuzkaten. “Komunismoaren hiriburua Mosku, eta haxe da egoera iraultzatik 70 urtera. Hau ote da, bada, gure geroa?”. Esaterako, Moskun bertan hasi nintzen ihes egiten pentsatzen.

Pentsatu bai, ez zizuten gauzatzen utzi.

1985ean, Kubako musikari bat heldu zen Ekialdeko Alemaniara. Laster adierazi zidan ez zuela Kubara itzuli nahi. Nirekin hitz egiteko beldurrez zegoen. Artean, ez zekien biok luma berekoak ginen edo ez. Ni Kubako inteligentzia zerbitzuarentzako ari nintzen lanean, baina kontrainteligentzia zerbitzua ere han zen, ehunka ofizialekin. Jakin zuten musikari hark ihes egin nahi zuela, eta jakina, ez zioten utzi nahi izan. Musikari haren pertsonarik hurrekoena, berriz, neu nintzen, eta beste agente bat izendatu beharrean, neuri agindu zidaten egitekoa. Gogoan daukat kontrainteligentzia zerbitzuko arduradunak esan zidana: “Ekintza iraultzailea duzu lan hori!”. Ihesbiderik ez neukala jabetu nintzen. Musikariarekin elkartu nintzen orduko, esan nion: “Badakite zein dituzun asmoak. Hobeko duzu arin ibili, biok harrapatuko gaituzte, bestela!”. Ordura-

“**Castrok 1976 arte ez zuen konstituzioa berrezarri. Bitartean, dekretu bidez gobernatu zuen. Bere egoak iraultza akabatu zuen**”

ko, banituen zenbait kontaktu AEBetako enbaxadarekin, eta haraxe deitu nuen telefonoz, baina deia harrapatu zuten, eta operatiboa abiarazi zuten.

Operatiboa?

Bai. Lehena, *Kubatarra* izeneko operatiboa izan zen. Bospasei pertsona ibili zitzaizkidan segika. Gero, bigarrena etorri zen, hogeit bat lagun nire atzetik, hirian noranahi nindoala ere. Bigarren operatibo honen izena, *Azukrea*.

Hara! *Azukrea*.

Sormen handikoak dira, horratik! Celia Cruzen kantua gogorarazten dit, "*Azúcar...*". Barre egin behar, ez dago besterik. Nire kide baten kontrako operatiboak *Txanogorritxo* zuen kode sekretua. Metro eta laurogeita hamar zen, gaua baino beltzagoa ilea... Eta *Txanogorritxo*! Ez ginen ez espioi, ez terrorista. Libre bizi nahi genuen, besterik ez. Operatiboaren amaieran, kide batek kafea hartzera gonbidatu ninduen -goxoa kafe hura, hala ere-, baina segada zen, kidea Stasi-rentzat ari zen lanean, Alemaniako Errepublika Demokratikoaren Inteligentzia Zerbitzuarentzat. Kafetegian geundela, komunera ni, eta, han nengoela, hiru gizonezko sartu ziren: "Etorri gurekin!", agindu zidaten. Ez zakar ere, baina: "Etorri gurekin!". "Nor zarete zuek?". "Badakizu", beraiek. Eta haiekin batera joan nintzen. Akabo, bada! Banekien ihes egiten saiatuz gero tiroka eraso egingo zidatela.

1987an izan zen hori.

Martxoaren 11n. Karl Marxen hirian bizi nintzen [Treveris], Berlinetik 250 kilometrora, eta hantxe harrapatu nin-

duten. Hartu, autoan sartu, begiak itxi eta preso eraman ninduten, Berlin alde-
ra, han baitzeuden aireportua eta Kubako Estatu Segurtasuna. Haatik, ez dakit non eduki ninduten. Ez zidaten tratatu txarrik eman. Autoan eraman ninduten, esku-bilurrik gabe, adibidez. Badakit beste asko furgoietan eraman izan zidutela, kaiolan itxita... Ni ez. Kubako gobernuak langilea nintzen, eta, beharbada, horregatik ez ninduten hain estu hartu. Odola gatzatu bihurtu zitzaidan, beldurra airean nengoen, zirkinik egiteko ezgai.

Ez zintuzten torturatu.

Ez. Bost bat egun eduki ninduten preso. Torturarik ez, baina presio psikologikoa jasangaitza zen: isolatuta, loa galarazten zidaten, eguna ziegan sartua... Stasiak "Psikologia operatiboa" deitzen zion horri, gerra psikologikoa, alegia. Presoa autoestimua behereneko mailara eramatea da helburua. Tortura zuria. Ez dizute libxibarik ematen. Aldiz, zuk zeure burua errudun sentitzen duzun punturaino eramaten zaituzte. Edo infernu gorri horretatik irteteko, haiekin kolaboratzen hasten zaren punturaino. Nire kasuan, arinago izan zen gauza, Habanan zain baintuen. Berlinen bost egun egin eta, nire txostenean idatzita dagoenez, Estatu Segurtasunerako ministroak ni Kubara eramatea erabaki zuen. "Ihes egin nahi zuen, eta harrapatu dugu. Jada, ez da gure afera". Eta Kubara.

Kubara, nora?

Habanara, La Vibora barrutira, Villa Maristas presondegira. Garai batean, 1960-61 arte, ikastetxe katolikoa zen,



1987ko martxoaren 11n atxilotu zuten García Vázquez Alemaniako Errepublika Demokratikoan.



DATORREN ARRAKALA

"Azkena, tornado bat Kuban. Zoritarrez, zenbait auzo suntsitu zituen Habanan, eta hildakoak ere izan ziren. Díaz-Canel presidentea Mercedes-Benz batean azaldu zen hara! Auzoa txikituta, pobrea, jatekorik ez... eta buila eta hoska hasi zitzaizkion. 'Lotsagabe hori! Utik!'. Fidel Castro buruargiagoa zen. Jeepen joango zen, olibaz jantzia, botak zikin... txapela erantziko zuen, zaplada bat honi, beste bat hari... Oraingoek ez dute Fidelen karismarik. Belaunaldi hura desagertzen ari da, eta, ondoko urteetan, sistemaren arrakala eta irekidura sakonak ikusiko ditugu. Haatik, Kubako armadak zer egingo duen ikusi behar".

METODOAK

"Ezagutu nituen ziegako barroteetara lotutako presoak, edo iletik eskegitako bat. Hori ez da, ordea, Kubako segurtasunaren ez Stasi-
ren helburua. Hezur hautsia, ubeldua... tortura fisikoaren ondorioak bistakoak dira. Haatik, tortura psikologikoaren ondorioak okerragoak dira: 'Hitz egiten ez baduzu, hortxe edukiko zaitugu hilabeteetan. Hitz egin nahi ez duzunez, galdetu ere ez zaitugu egingo'. Eta zer egin behar du presoak egunetan eta egunetan, bi bider bi den ziegan sartuta? Zenbat irauten du presoak egoera horretan?"

Azken hitza: KONTZIENTZIA

"Diktadura guztietan berdin da. Haurrak ez du diktadura ikusten. 15-16 urtetan, berriz, gaztea hizketan hasten da, edo galarazita dagoen liburu bat irakurtzen, edo arrazoi politikoengatik preso egondako jendea ezagutzen. Orduantxe hasten da gaztea jabetzen, denek ez dutela berdin pentsatzen oharitzen".

baina diktadurak polizia politikoaren ikergune bihurtu zuen Villa Maristas, erre psikologikoaren eta kontrainteligenziaren kuartela. Hortik igaro ginenok aski gaizki atera ginen, eta berdin zen sei ordu, bi egun edo sei egun eman han. Villa Maristasetik igaro den kubatar opositor batek ere ezin izan du hango egonaldia ahaztu. Tristeza da lekua. Sartzen zarenetik irteten zaren arte, haien mende zaude. Ziegak, irudikaezinak dira: zulo bat erdian, nork bere beharrak egiteko; lanpara bat, beti piztuta; egun-argirik ez... Klaustrofobia dutenentzat ez gomendagarria, konparazio batera. Kur, kur...

Zenbat denbora eduki zintuzten Villa Maristasen?

Egun batzuk besterik ez. Agiri bat sinatu nuen, nire erruduntasunaren aitortza eginez, traizio maila altua aitortuz. *Mea culpa* bat, finean. Bigarren aukera bat eman ziezadatelarik eskatu nien, eta libre utzi ninduten. Nitaz arduratzen zen ofizialak –sekula ez zait ahaztuko, Hernández zuen deitura–, esan zidan: “Zeure esku dago... iraultzaren gurdira igotzea!”. “Eskerrik asko!”, esan nion.

Zer egin behar nuen, bada? Ez nuen aukerarik.

Noiz irten zinen Kubatik?

1992an. Alemaniarra nuen orduko emaztea. Kubatik behin-behinean irteteko baimena eskatu nuen. Haiek, berriz, behin betiko txartela eman zidaten. Nik, Alemaniara joan, egoera ikusi, Kubara itzuli eta erabaki egin nahi nuen. Ez nuen aukerarik izan: “Behin betiko”. Libre bizi nahi nuen, baina ez horrela. Desterratu egin ninduten. Lantza izan zen. 1996an, Kubara itzuli nintzen, oporretan, baina hiru aste egoteko baimena besterik ez zidaten eman.

Beti betiko galdera: zer iritzi diozu AEBen bahimenduari?

Erreprimitzen segitzeko aitzakia handia da bahimendua. Bahimendu hori altxatu, eta beste bat asmatuko dute. Kanpoko bahimendua? Nahi duen herrialde guztiekin negoziatzea dezake Kubak, AEBekin izan ezik. Japonia, Kanada, Mexiko, Brasil, Venezuela... Bahimendua oso gauza gogorra izan zen 1970ean, baina AEBeko presidente Jimmy Carterrek aukera eman zion Fideli. “Leihoa ireki

behar duzu!”. Horixe eskatu zion. Fidelek, berriz, nahiago izan zuen bahimendua, elkarriketa baino. Duten aitzakia bakarra da bahimendua.

Kubako gobernuaren arbuioa jasan duzu. Europan ere, interpelatu zara...

Alde batetik eta bestetik erasotzen naute, eskuinetik eta ezkerretik. Ni, aldez, giza eskubideen aldeko ekintzailea naiz. AEBen atzerri politika kritikatzeko, sobietarrena, edo Errusiarena, Txinarena, Ipar Korearena, Venezuelarena... Giza eskubideen aldeko ekintzaileak ez du kolore politikorik, ez da alderdi politiko jakin bateko kide. Ni Askapenerako Kristau Mugimenduko kide naiz. Oswaldo Payá genuen liderra, baina 2012an hil zen Kubako estatu segurtasunaren atentatuan. Elkarriketa bidez egin zion aurre Kubako gobernuari, diktadurari. Elkarriketaren aldeko zen, Varela Proiektuaren sustatzailea. Ez zuen lehergairik, ez garra-sirik, ez gisakorik baliatzen... Haren jarraitzaileoi, berriz, pentsatzen duguna esaten segitu besterik ez zaigu gelditzen, egoera aldatuko delakoan, poliki-poliki. ●

2018-2019



elhuyar da

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka

bizi
ikerketa!

MAIATZAREN

11ⁿ

larunbata

Bilboko Plaza Barrian,
12:00etatik aurrera!

zientzia-azoka.elhuyar.eus

SARTU
ZURE
AGENDAN!



elhuyar da

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK





Iritziak

Enpleguaz irakurriko ez dituzun datuak



**ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN**
EKONOMIALARIA

Hauteskunde garai honek hainbat gai mahairatu du. Enplegua ez dago lehenengoan artean. Azpimarragarria da, batez ere populazioaren gehiengoa soldatapekoa denean eta Errezesio Handiaren ondorioak oraindik gainditu ez ditugulako. Bestalde, hurrengo krisiaren zantzuak gero eta agerikoak dira, enpleguan zuzenean eragingo duena.

Errezesioa gainditu ote dugun aztertzeke, sarritan Barne Produktu Gordina kontzeptua erabili ohi da. BPGk, ordea, ez du esaten sortutako aberastasuna nola banatu den. Azterketa hori enpleguaren aldetik egiteak zentzuzkoa dirudi, gizartearen gehiengoak enplegua behar duela bizirik irauteko. Nolanahi den ere, gobernuek estatistikak helarazten dizkigutenean, sinatutako kontratuen zenbakia azpimarratzen dute, ageriko trikimailua. Magnitude hori erabiltzea ez da praxi ona: gauzatutako lan erreformen ondorioz, langile batek epe zehatz batean duen batez besteko kontratu kopurua handitu da; horrenbestez, kontratu ugari sinatzeak ez du esan nahi langabezia pertsona gutxiago dagoenik. Prekarietatearen adierazgarria izan daiteke, saldu nahi den kontrako irudia. Beste aldetik, langabezia tasa lan merkatuaren termometro gisa ere erabiltzen da, baina erabilera horrek bi kritika nagusi jasaten du. Batetik, ez duela enpleguaren kalitatea neurtzen eta, horren ondorioz langabezia

Errezesioa gainditu ote dugun aztertzeke, sarritan Barne Produktu Gordina kontzeptua erabili ohi da. BPGk, ordea, ez du esaten sortutako aberastasuna nola banatu den

tasa murriztago bat izan dezakegu, lan baldintza okerrago batzuekin. Bestetik, estatistika horietan zer sartzen den eta sartzen ez den langabezia tasa handiago edo txikiago bat definituko du: ikasketak luzatzen dituzten gazteek, enplegu aukerarik ez dagoenez, ez dira langabetu moduan kontuan hartuko; edo langabetu bat “desanimatu” gisa definitzen badugu, horrek langabezia tasa murriztuko du. Nahiz eta estatistikek oso neutralak diruditen, egiten diren definizioetan uste politikoak egon daitezke.

Orduan, enpleguaren egoera aztertzeke beste hurbilketa bat egingo dut, enplegatutako pertsona kopurua erabiliz, Euskal Herri penintsularreko datuak eta 2007-2018 epea aztertuz. Sektore pribatuan, 28.000 kontratu finkodun gizon gutxiago daude, eta 44.000 emakume gehiago. Krisiaren une gogorretatik (2013) behin-behineko kontratua dutenek 68.000 gehiago dira, 2008ko

antzeko mailan dago: 201.500 gizon eta emakume dira.

Sektore publikoari lotutako enpleguen artean, Errezesio Handiko beheraldiaren ostean behin-behinekotasuna handitu da, egoera horretan 48.600 emakume eta 21.400 gizon daude. Prekarietate egoera hori nabariagoa da EAEn, Nafarroan baino. Behin betiko enplegu kopuruak pixka bat gora egin du, baina gaur eta 2010eko datuak alderatuz, gizonen kopurua ia berdina da (57.700) eta emakumeen kopuruak apur bat gora egin du, enplegatuen kopurua 75.200ekoa izanik.

Sektoreka, langile gehiago duen sektorea zerbitzu sektorea da, 34.200 gizon eta 32.000 emakume gehiago. Eraikuntza sektorean 2008an zeuden langileen erdia dago eta nekazaritza sektorearen enplegu gainbehera agerikoa da. Industria da gainera handia jasaten jarraitzen duen sektorea, 2008-2018 epean EAEn 31.500 industria langile gutxiago baitago, Nafarroan antzeko mailan mantentzen den bitartean.

Datu horiekin ez dut irakurlea estutu nahi, soilik lan munduaren egoera zein den mahairatu nahi dut, datuak hor daude, elementu gutxi batzuk aztertu ditudan arren. Enpleguaren egoera ez da inondik ere berreskuratu, eta hamar urteko Errezesio luze honek ondorio latzak ditu pertsonengan. Miseria luzatzen denean, kontuz eman daitezkeen ondorioekin, politikoak barne. ●

Ahalduntzea



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

Publikoaren arteko askok pentsatu zuten mikromatxismoei buruzko *performance* bat izan behar zuela. *Tantaka* telebistaren aurkezpen ekitaldian, hiru kazetarien arteko solasaldi elebidunean parte hartu nuen. Gizon bat eta bi emakume ginen. Hasi aurretik, bi neskak urduri ginela onartu genuen; bera jendaurrean gaztelaniaz okerrago moldatzen omen zelako eta ni euskaraz ez nintzelako nahikoa trebe sentitzen. Hara gizonaren erantzuna: “Nik, ordea, konturatu gabe egiten dut salto bi hizkuntzen artean”. Bere doinuagatik igartzen zen jatorriz atzerri-tarra zela, hau da, euskaldunberria. Eta hala ere, txikitatik elebidunak ginen bi neskak baino konfiantza gehiago zuen bere hizkuntza gaitasunean.

Komentario hori bere harropuzkeriaren lehenengo seinalea izan zen. Erdian eseri zen, hankak oso irekita, ozenago eta luzeago hitz egin zuen... Nik mintzatzea baino nahiago dut eguneroko esperientziez aritzea, hortaz, *Pikara*-n ikasitakoak (hanka sartzeak barne) kontatu nituen. Tipoak jarraian sastada bota zidan: “Ni ez naiz ‘nire liburuari’ buruz hitz egitera etorri”. Ziztadaren pozoia nire baitako ahots patriarkala elikatu zuen. Jendaurrean astero hitz

egiten dudan arren, ahots horrek beti boikoteatzen nau. “Iruzurtiaren sindromea” deitu omen zaio: Eneida Iturberen hitzetan, “[emakumeak] eurak berez ez direla hain onak konbentzituta, jendea noiz konturatuko ote den zain daude”.

Espazio publikoa gizonena dela ikasi dugu bai eurek zein emakumeok. Euskaltzaindiak aurtien gehitu du “plazandre” sarrera, feministok aspaldi erabilitako hitz esanguratsua. Misoginoek uste dute oholtzaren gainean edo kameraren aurrean erraz utz gaitzaketela jokoz kanpo. Hark ez zuen lortu, baina etxetik nekarren beldurrei beste bat gehitzea lortu zuen: “Guri begira dauden ehunka lagunek pentsatu ote dute nartzisista naizela?”. Oholtzatik jaitsi ginenean, beste emakumezko kazetaria elkartasunez hurbildu zitzaidan eta ezin izan nien malkoei eutsi.

Kazetari askok aitortu didate he-dabideetan parte hartzeko prest dauden andreak topatzea oso zaila dela, eta hizkuntz gaitasunekiko konfiantza urriagoa dela arrazoietako bat. Euskaltzaletasunak feminismotik “ahalduntze” kontzeptua hartu duela nabarmendu dute bi mugimendu horien arteko harremana aztertzen duten adituek (Lorea Agirre, Idurre Eskisabel, Mari

Luz Esteban, Bilgune Feministako ki-deak...). *Jakin* aldizkariak, UEUK eta Gabriel Aresti euskaltegiak gai honi buruzko ikastaroa antolatzen ari dira. Bigarren saioan, euskalduntze prozesuetan generoak duen inpaktua aztertu zuten Aizpea Otaegi eta Jaime Altuna ikerlariek. Besteak beste, andreak direla euskaltegi-tako ikasle gehienak, eta hala ere gizonak baino autopertzeptzio negatiboagoa adierazten dutela euskararekin duten harremanaz galdetzen zaienean.

Ikastaroan matrikulatuen partaide-tza urria izan da: emakume gutxi ausartu dira Bilboko Kafe Antzokia bezalako areto batean iritzia ematera. Hirugarren saioan, bi gizonak hartu zuten hitza, feminismoa kritikatzeko gainera. Ozen hitz egin zuen emakume bakarra kazetaria eta euskarazko literatura idazlea zen. Nik post-it batean idatzi nuen nire galdera.

Interesgarria da ingelesezko *empowerment* euskaratzeko aukeren artean –jabekuntza, boteretzeta, ahalduntzea– azken hori gailendu izana. “Ahal dut, ahal dugu”, gogorarazi behar diogu plazandreok gure buruari uneoro, gure baitako ahots patriarkala baino ozenago, eta hizkuntza askotan. ●



IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA
SOZIOLOGOA

Euskara Sistema Eragilean

Aplikazio bat izatetik Sistema Eragilean txertatzera igaro behar du euskarak, Maialen Lujanbioren esanetan. Ados! Euskararen premia gizartearen elementu periferikoetara mugatzen bada, jai dugu epe ertain-luzean.

Zein da, bada, gure sistemaren zutabea? Zalantzarik gabe, ekonomia. Horrek ezartzen ditu gure bizi baldintzak maila profesionalean eta horretara bideratutako hezkuntza sisteman. Baita, arlo pribatuan ere, kontsumitzaile bezala. Heziketa-Ondasun-Kontsumo hirukoaren arabera dugu ongizate maila aberatsa edo txiroa, eta horren gainean esleitzen zaigu estatus sozial apala edo jasoa.

Balio etikoak, filantropikoak eta antzekoak ez daude bizi garen munduaren muinean. Kalitate horiek guztiak izanda ere, pobrea ez da *nor* gure gizartean; ez du bertan eraginik.

Horregatik, euskara osasuntsu eta luzaro biziko bada, bi aukera baino ez dauka. Bata, gure sistemaren *aldarea* den ekonomian euskara txertatzea. Bestea, utopia; alegia, egungo sistema globala eraldatzea eta oso bestelako balioak izango lituzkeen mundu berri bat gartzatzea, non, besteak beste, hizkuntza guztiek maila bera izango luketen.

Utopiari uko egin gabe eta horren atzetik pausoak eman bitartean, eskura

dugun planteamenduari ekin behar zaio epe motzean: euskara Sistema Eragilean txertatzeari. Horrela, gainera, globalizazioaren berdinkeriarako joera orojaleari nolabaiteko galga jarriko genioke; berezko dinamika hori zertxobait oztopatuko genuke, behinik behin.

Horretarako aipatu ohi den giltzarria lan mundua da. Lanpostuetara eraman behar dela euskara eta, era horretan, langileek euskara jakin beharko luketela. Ados, baina hizkuntza eskakizunak aspaldian ezarri ziren herri administrazioan, eta neurri horrek ez du erabilera orokorrik automatikoki ekarri.

Ekonomiaren logikari jarraiki, soilik negozioarako probetxugarria denean egingo zaio lekua euskarari. Zergatik eta zertarako nahasi euskara finantzetan, enpresetan, zerbitzutan eta abarretan, dirurik eman ezeari? Merkatuaren estutasunean *alferrikako* beste gastu bat gehitzeko? Lehiatzeko abantailaren bat izan beharko du, ezinbestean.

Puntu horretara iritsita, guk geuk, kontsumitzaile, langile, sindikalista edo bezero gisa, badugu zer esan. Botereek aldeko neurriak ezartzearekin batera, euskararen eskaera komunitateak egin behar du; horrela baino ez da euskara errentagarri izango; horrela baino ez da Sistema Eragilera iritsiko. ●



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Apirilak

Badu bulta bat, gure ingurune naturala iratzartzen ari dela. Sapa igo-tzen doa arbola, zuhaitz eta kak-tusen zainetan gora. Goizetan, Eibarren suge-belarra deitzen duten hartz-baratxuri hostoak murtzikatu eta indar hozbera horren eraginak nabaritzen ditugu gure baitan. Udaberriak ez dira isilak. Udaberriak ez dira ahulak. Alderantziz.

Maite dugun poeta handi batek *apirila ankerra* abestu zuen. Ismael Kadaré albaniarrak ere badu *Apirila hautsia* izenarekiko aspaldiko nobela bat. Laugarren hilabetea urteko garrantzitsuen da, hunkiduraz eta kemenez betea heldu

delako. Polenak sudur zuloak emokatzten ditu, erregina nagiek akuilaturiko erle mehatxatuak kardabera horietan dabilta lanean, karraskaz, eta jendea, nola jantzi ez dakiela errepikatzen dabil.

Funtsean zer daki jendeak naturaz, glifosatoa sainduz eta eros-ahal handiago nahikundez mozkor, tematzen denean. Segur aski, bestela bizi gaitezke, gutxiagorekin, hobeagorekin. Baina diskurtso horiek ez dira entzungai oraino. Atalante zine-gela berriaren aldamenetik, apiril arrastietako kobre koloreko Baiona gaineke zerua mirestea, etorkizuna eskura dugula espero dugu. ●

G7 eta bere munduaren kontra kalera!



JAKES BORTAIRU

ABERTZALE BATASUNEN KIDEA

G7 bilduko da Miarritzen, beraz Euskal Herrian, heldu den agorrileko 24, 25 eta 26an. Oraindik politikoki ukatua, zatitua eta bere burujabetza aldarrikatzen duen herri batean. Sistemari erresistentziak, elkartasunak bizirik irauten duen eta alternatibak sortzeko esperientziak ugari diren lurralde batean.

Miarritz herriarentzat G7 bertan biltzea aukera ederra dela erraten dute Iparraldeko hautetsi eta jendarteko sektore batzuek, ekonomikoki eta publizitatearen aldetik. Nola pozten ahal da handi-mandien etorreraz? Nola txalotu Macronen komunikazio operazio itxura hartzen ari den gertakari hori? Edota Trump bezalako buruzagi ero baten bisita, klima aldaketa ukatzen duena, diskurtso arrazista garatzen duena, gerla komertziala sustatzen eta nazioarteko tentsioak akuilatzen dituen? Gailur horrek oroz gainetik ekarriko duena astez aste agertuz doa, antolaketa buruzko informazioak filtratzen diren arabera: militarizazio eta setio egoera, poliziaren bortizkeriaren arriskua, herritarren joan etorrien mugatzea, eskubideen behin behineko murrizketa, manifestatzeko eskubidea, besteak beste.

Euskal Herri osoko 35 herri mugimendu, sindikatu eta ezkertiar alderdiek G7 EZ! plataforma osatu dute eta G7-ren etorrera Euskal Herrian bestelako mundu baten urgentzia aldarrikatu eta erakusteko parada izan dadin lanean hasi dira

G7-k historikoki inperialismoaren bizkar hezurra osatzen duten herriak biltzen ditu. Talde hertsia eta eskusiboa da. Modu informalean, munduko agendan eragiteko sortu zen, baina hasieratik bertatik klase dominanteen eta multinazionalen interesak zaindu eta babesteko eginga izan da. Gailur horrek interpelatzen gaitu, nahitaez, tokiko agenda politikotik harago, herritar gisa, ezkertiar gisa, abertzale gisa, ekologista gisa, antikapi-

talista gisa... Ez da duda izpirik munduko buruzagi nagusiei kontra altxatzea bidezkoa bezain beharrezkoa izanzen dela, injustizien emendatzea, nazioarteko tentsioak eta ingurugiroaren erronka larriak ikusirik. Jendarte zibilaren funtzio nagusietatik bat da herriaren boza entzunaraztea, gobernuak, hauteskondeen bitartez hautaturik ere, gaizki egiten dutena edo egiten ez dutena salatzeke, egin beharko luketena aldarrikatzeko.

Euskal Herri osoko 35 herri mugimendu, sindikatu eta ezkertiar alderdiek G7 EZ! plataforma osatu dute eta G7-ren etorrera Euskal Herrian bestelako mundu baten urgentzia aldarrikatu eta erakusteko parada izan dadin lanean hasi dira, nazioarteko beste eragile batzuekin elkarlanean. Estatu nagusi horien politikak salatzeke eta berehalako neurriak exijitzeko arlo desberdinetan: izan desberdintasun sozialak, klima aldaketa, arazo ekologikoak, paradisu fiskalak edota emigranteen kontrako politikak. Baita kapitalismotik harago, beste logika, lehentasun eta alternatibak aldarrikatzeko eta herrien autodeterminazio eskubidea defenditzeko ere. ●





SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA



Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Oresa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20

Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

II. HEZKIDETZA PLANA

101 IKASTETXE BETAURREKO MOREAK JANZTEKO PREST

Euskal Autonomia Erkidegoko II. Hezkidetza Plana aurkeztu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. 2023. urtera arte "berdintasunaren eta tratu onen" bidean egin beharreko bide orria markatu dute. Planak ikastetxeko komunitate guztiari eragin nahi dio, langileei, ikasleei, irakasleei eta familiei.

 MALEN ALDALUR AZPILLAGA



BALOIRIK EZ

Duela urte batzuetako argazkia da, Zaldupe Ondarroako eskola publikoan ateratakoa. Jolas-orduan daude haurrak eta ezin dute futbolekin jolastu egun horretan. Mutilak jabetzen dira baloiaz eta patioaren erdigune osoa hartzen dute. Mota horretako esperientziak probatzen ari dira eskola askotan gaur egun.

 DANI BLANCO



Ikastetxe guztia bustitzen duen erria izan behar da Hezkidetza Plana”, azaldu du Lucía Torrealday Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak. Hala irudikatzen du berak plan berria. Hiru fasetan banatutako prozesu luze baten ostean atera dute labetik, eta datozen lau urteetan eskoletako berdintasun oinarriak ezarriko ditu. Dena den, ez da ezerezetik jaio. 2013tik 2017ra bitarte I. Hezkidetza Plana egon da indarrean eta haren oinarrietatik abiatuta eraiki dute II. plana, “ahulguneetatik ikasiz eta indarguneak errotuz”.

Izan ere, planak aldatu diren arren, helburuak berberak direla gogorarazi du Torrealdayk: “Hezkidetza eredu aurreratutako egitura eta pertsonak jartzea; ikastetxeek genero ikuspegia beraiei kulturen, politikan eta jardueretan txertatzeko bultzada ematea; eta, azkenik, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzio, detekzio goiztiarra eta erantzun eraginkorra lortzeko mekanismoak martxan jartzea”.

Aurreko planaren ahultasunen artean bi nabarmendu ditu Torrealdayk: “Hasteko, gauzatu beharreko ehun jardura zerrendatu genituen eta horiek egiteko epea urtebete luzatu bagenuen ere, ez genuen halakorik lortu; bigarren oztopoa jardura horien asetzeko maila ebaluatzeko topatu genuen”. Ahultasun horiei aurre egiteko estrategiak diseinatu dituzte plan berrian: “Jardura kopurua, esaterako, 100etik 41era pasa dugu eta nik uste dut planaren balio erantsi gisa aipatzekoa dela erreminta eta egiturak jarri ditugula jardura horiek ikastetxetara eta ikasgeletara heltzeko”.

Bestalde, plana osatzeko prozesuak ere eduki du berezitasunik. “Ez da lan erraza izan planaren diseinua egitea”, eta zirriborro bat baino gehiago eduki dute esku artean, azken bertsioa lortu arte. Planean lanean aritu dira, besteak beste, Berritzeguneko ordezkariak, ikuskaritzak, ISEI Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea, berdintasun teknikariak eta zerbitzu zentraletako ordezkariak. Jende ugari hartu du parte, baina Torrealdayren hitzetan nabarmentzekoa izan da, bereziki, Emakundeen parte hartzea.

ALDAKETA IKASGELETAN

Torrealdayk azpimarratu du aurreko plana “oso indartsua” bazen ere, geletara heltzeko zailtasunak zituela eta plan berrian horretan jarri dituztela indarrak. Bat dator horretan Marian Moreno hez-



kidetza gaitan aditua ere: “Planak praktikara eramateko duen erraztasuna da berritasun nabarmenetako bat”. Ikastetxeek hezkidetza transbertsalki lantzeko ahalik eta material gehien eskaintzea izan da planaren helburua Morenoren ustez. Hain zuzen ere, horretan aritu da bera II. Hezkidetza Planean. Aurretik Nafarroako Skolae programaren diseinuan aritu zen eta han asko ikasi zuela dio: “Ilusio handia egin zidan parte hartzeko deitu nindutenean. Nire lana, bereziki, ikasgeletan hezkidetza lantzeko irakasleentzako materiala prestatzea izan da”.

Ikasgeletan lantzeko materialak zortzi zutaberen baitan osatu dituzte. “Guk materialak prestatu ditugu zutabe bakoitzaren inguruan, eta gero ikastetxe bakoitzak bere hezkidetza plana egin beharko du zutabe horiek oinarritzat hartuta”. Honakoak dira zortzi zutabeak: pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean; hezkuntzaren eta irudien erabileraz ez-sexista; emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen sozial eta

historikoa; gatazken konponketa baktikoa; hezkidetza elkarbizitzarako proiektuen bidez; autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa; espazioak ikastetxean eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jardura osagarriak; berdintasuneko hezkuntza afektibo eta sexuala; eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku-hartzea.

Baina zein motatako jarduerak aurreikusten ditu planak zutabe horietarako? Ikastetxe mailan, esaterako, honakoak aipatu ditu Morenok: “Jolastokiak hezkidetza identitatearekin berreraikitzea, eskolako liburutegian indarrak jartzea, ikastetxeko jardueretan genero ikuspegia txertatzea, familiekiko harremanak eta informazioak genero ikuspegiz egitea, material hezitzaile guztiak errebisatzea, eta ikastetxeko kartelak gainbegiratzea, besteak beste”. Dena den, zentrotik harago irakasle bakoitzak bere ikasgelan ere badu zeregina: “Emakumeek historian, kulturen, kirolean eta



FOKU / JUANAN RUIZ

beste hainbat arlotan egin dituzten lanak ikusaraztea; patriarkatuaren eta ezberdintasunen zergatia eta ondorioak aztertzea; hezkuntza eta lan orientazio okerrak ez bideratzea; curriculumean esplizituki ageri diren estereotipoak apurtzea; LGTBI fobiaren kontra borrokatzea; sexu heziketa berdinzalea ematea, eta beste hainbat kontu". Bestalde, planak tratatu onez hitz egitearen garrantzia ere azpimarratzen duela dio: "Askotan nola jokatu behar ez dugun erakusten diegu haurrei, nola jokatu ordez".

Morenok uste du irakasleek gauza asko egin ditzaketela beraien egunerokoan eta adibide gisa etxeko lanen inguruko jakintza hezkuntza arloan sartzearen garrantzia azpimarratu du: "Etxeko lanak egiten jakiteak ezinbestekoa den autonomia ematen digu. Etxeko lanetan ez da erantzunkidetasunik egon. Gu lan munduan sartzen gara, baina gizonak ez etxeko lanen esparrura". Horregatik, uste du garrantzitsua dela erantzunkidetasuna, pertsonen zaintza eta guraso-

tasun berdinzaleak bezalako gaiak eskolara eramatea.

Dena den, argi dute gakoa zein den Torrealdyk eta Morenok: "Gai guztiak genero ikuspegiarekin lantzea". Morenok azpimarratu du material guztietan daudela hainbat gai perspektiba feminista transbertsalki lantzea ahalbidetzen dutenak. Horretarako, uste du garrantzitsua dela hezkidetzaren oinarri diren hainbat gako aintzat hartzea: "Adibidez, emakumeen ikusgaitasuna, maskulinitate berdinzaleak, feminitate ahaldunduak, eta autonomia pertsonala eta enpatia lantzea".

FORMAKUNTZAREN GARRANTZIA

Hala ere, jakin egin behar da edukiak nola egokitu genero ikuspegia txertatzeko, eta horretarako giltza "formakuntza, formakuntza eta formakuntza gehiago" dela uste dute Torrealdyk eta Morenok. Horretan jarriko dituzte indarrak, eta saioak eskainiko dizkiete bai hezkuntza eragileei baita familiei ere.

"Berdintasunean irakasteko, lehenengo berdintasun horrek norberaren barruan egon behar du; pertsona bat berdinzalea denean, transmititu egiten du, eta berdintasunean eta berdintasunetik irakasten du", dio Morenok. Horregatik uste du edonork ezin duela berdintasunean hezi: "Badago irakasleen artean ideologia matxista duen jendea eta horiek ezberdintasuna eta diskriminazioa transmititzen dute. Arrazista den inork ezingo du inklusioan eta justizian hezi, berdintasunarekin berdinduz gertatzen da".

Uste du irakasleen arreta lortzeko ezinbestekoa dela formakuntza, izan ere, nabarmendu du hezkidetzan prestakuntza eskaintzen denean irakasleen begirada aldatu egiten dela: "Kasu batzuetan ez da hainbeste matxistak direla baizik eta inork ez diela hezkidetzara zer den azaldu, eta azaltzen dietenean ezberdintasunak ikusten hasten dira". Beraz, uste du diskriminazioa lantzen hasteko lehen urratsa kontzientzia hartzea dela eta hori irakasleen trebakuntzarekin egin behar dela. "Onena litzateke formakuntza hori unibertsitatetik hastea, baina ez denez hala, hezkuntzatik egin behar da ahalegina". Bestalde, uste du horrek hainbat zailtasun ekartzen dituela, izan ere, irakasleei prestakuntza gehigarriak hartzea eskatzen zaie, "eta horretarako, beharrezkoa da zentroetatik erraztasunak ematea".

Hezkuntza alorrean lanean diharduten eragileei formakuntza eskaintzeko egiturak sortuko dituztela dio, berriz, To-

rrealdyk, eta horretarako, Bizikasi egitasmoa erabiliko dute adibidetzat. Egitasmo honek elkarbizitza positiboa sustatu eta eskola jazarpenaren aurka egiten du: "Bizikasi egitasmoan trebakuntza asko egin ditugu eta gainera irakasleei material ugari eskaini diegu gaia ikasleekin modu errazean landu ahal izateko". Hori izango de Hezkuntza Sailaren hautua, irakasleen lana errazteko materiala eta formakuntza eskaintzea eta Berritzeguneen bitartez egingo dute hori, besteak beste. Torrealdyk dio Bizikasi egitasmoak balorazio oso ona jaso duela ikastetxeen aldetik eta horregatik erabiliko dutela formula bera. Bestalde, ikastetxeetan hezkidetzara arduradun bat egongo da eta aktiboki parte hartuko du ikastetxeko gainerako komisio eta jardueretan.

"Ez dut sinesten martxoaren 8-ko ospakizunetan, atzetik behar bezalako lanketa ez bada egiten. Hezkidetzara Plana ikastetxean nabaritu behar da atetik sartzen zarenetik irteten zaren arte: ikasgelan, jantokian, jolas-orduan eta beste leku guztietan"

LUCÍA TORREALDAY
HEZKUNTZA BERRITZATZEKO
ZUZENDARIA

Dena den, hezkuntza sistemaren motor nagusia, edo bakarra behintzat, ez dira irakasleak. Hala azaldu du Morenok. "Hezkuntza arloan botere kargua duten horiek ardura handia dute. Beraien esku dago arautzea, ikuskatzea eta irakasleak hezte". Azpimarratu du dena dutela esku-berdintasuna lehenesteko, eta ez dela nahiko tiritak jartzen ibiltzea: "Arazoa da botere karguetan dagoen jende askok ere formakuntza behar duela. Karguak dituztenak ere pertsonak dira, eta pertsonak diren heinean beraien motxilak dituzte, beraien bizi esperientziekin". Uste du horregatik dela garrantzitsua hezkidetzan kontzientzia duten pertsonak botere karguetara iristea, horrela baliabideak bideratuz hezkidetzara behar den bezala ikasgelaz ikasgela eramateko modu sistematikoa eta orokorrean.

Baina horrela ere ez da arazoa konpontzen Torrealdyk ustez. Ikastetxeak ez dira irla, maiz hori pentsatzen badugu ere: "Batzuetan uste dugu ikas-



DOAKO JARDUERAK

Maiatzaren 3tik 5era

AMAREN EGUNA.
Eskulanak Kids Zone-en.

Maiatzaren 10etik 12ra, 17tik 19ra eta 24etik 26era

DORAEMON-en JOLASAK ETA JARDUERAK, larunbatean pertsonaiaren bisitarekin.

Maiatzaren 11ean, 18:30

ORIOKO TRAINERUA URBILEN
"Berriz ere... Hemengatoztink"
Kanpainarekin.

Maiatzaren 18an, 18:00

Inaxio Perurena eta Eneko Saralegi-rekin HERRIKIROLEN ERAKUSKETA

Maiatzaren 25ean

FIFA19 TXAPELKETA
Hype Station®-en.

Maiatzaren 31etik ekainaren 30ra

"BIDAIAZERA GOAZ"
Kids Zone-en.

ETA GAINERA...
Ezagutu gure DESKONTU-DUN AISI PLAN GUZTIAK
www.urbil.es/urbilbox -en.



urbil.es



tetxeak kontainerrak direla eta hor botatzen dira gizartearen kaka guztiak guk antolatzeko eta konpontzeko". Uste du erantzunkidetasun pixka bat behar dela. Badaki ikastetxeek agente aktiboak izan behar dutela arazo horien konponketan, baina bestelako erakundeek, elkarteek, eragileek eta familiek ere zeresana dutela uste du. Horregatik, II. Hezkidetza Plana behar bezala aurrera eramateko familien eta ikastetxe inguruko gainerako agenteen inplikazioa ezinbestekoa dela dio.

Bat dator horretan Moreno ere. Uste du familia sozializazio prozesuko arlorik garrantzitsuenetakoa dela, besteak beste, lehenengoa delako: "Den den, familia ez dago legez behartua modu berdinez jokatzera, ikastetxeak, aldiz, bai". Egokiena familien eta ikastetxeen artean kolaborazioa batera iristea litzatekeela uste du, eta horrela, eskolan lantzen den hori ondoren etxean landu, baina badaki ez dela lan erraza. Beste arlo garrantzitsua bat aisialdia dela nabarmendu du: "Ikasle guztiak berdintasun irizpideetan hezteko litzateke egokiena, horrela egunerokoan sexismoa identifikatu ahal izateko. Gakoa errealitatea ikuspegi feministatik aztertzen erakustean dago".

AURRERA BEGIRA

Hezkidetzaren garrantziaz jabetuta, berdintasuna ikasgeletara eramateko ahalegin handia egin dutela dio Torrealdayk: "Hezkidetza garrantzitsua da nahi dugun gizarte mota eraikitzeko; guztion eskubideak errespetatuko dituen gizartea eraikitzeko. Horregatik, niretzako ezinbestekoa da". Hori dela eta, Hezkuntza Berriztatzeke zuzendariak nabarmendu du espero duela ahalik eta ikastetxe gehienek parte hartzea proiektuan: "Datuek behintzat hala erakusten

dute, iaz hogeit hamar ikastetxe inguruk eman zuten izena gure deialdian, eta aurtengo 101 ikastetxek". Izan ere, adierazi du berak ez duela sinesten martxoaren 8ko ospakizunetan baldin eta atzetik behar bezalako lanketa ez bada egiten: "Hezkidetza Plana ikastetxean nabaritu behar da atetik sartzen zarenetik irteten zaren arte: ikasgelan, jantokian, jolas-orduan eta beste leku guztietan".

"Kasu batzuetan kontua ez da irakasleak matxistak direla baizik eta inork ez diela hezkidetza zer den azaldu, eta azaltzen dietenean ezberdintasunak ikusten hasten dira"

MARIAN MORENO

II. HEZKIDETZA PLANA ETA SKOLAE DISEINATZEN ARITU DEN ADITUA

Morenorentzat, berriz, egiteko garrantzitsuenetakoa bat legea betetzea da. "Berdintasun legea betetzea ezinbestekoa da. Gertatzen ari dena da oraindik hezkuntza agentariak ez dutela legea beteazteko adorerik". Nafarroako Skolae proiektua jarri du legea bete daitekeenaren adibide gisa: "Skolaek erakutsi du posible dela formakuntza, baliabideak, materialak eta estrategiak martxan jartzea ikastetxeetan". Baina argi du horretarako beharrezkoa dela gizartearen alderik atzerakoienari aurre egitea: "Agentariak legea alde dute hezkidetza proiektu integralak abiatzeko. Ez da behartze kontua, legala izate kontua baizik". ●

20 urte

elkarrengandik ikasten

hh
hik hasi

Udako Topaketak 2019 - Donostia

Uztailak 1 mahai-inguruak

Uztailak 2, 3 eta 4 ikastaroak



Heziketa berdea, jolas-tokiak, pedagogia sistemikoa, heziketa emozionala, askatasunaren kudeaketa, Montessori pedagogia, mugak eta autoestimua, heriotzaren lanketa, dislexia, haurrak eta poesia, argiarekin jolasean, antzerki teknikak, sormena lantzeko estrategiak, jolas terapia, euskal mitologia, yoga eskolan, barnekotasuna, espazioa eta materiala Budapesteko Pikler-Lockzyko profesionalen eskutik... eta gehiago.

Informazioa eta matrikula www.hikhasi.eus helbidean

Polimaitasuna

Pozen atzeko minak eta arriskuak

Polimaitasunaz erreportajea kaleratu genuen 2640. zenbakian, harreman sexu-afektiboak ulertu eta praktikatzeko modu anitzak bistaratuz. Pozetan zentratu ginen arren, minez eta arriskuez hitz egin beharra ere azpimarratu genuen, eta horren emaitza da polimaitasunari eskaini diogun bigarren artikulua hau. "Sistema bakarrik ez, barrenak ere jartzen dira kolokan", ohartarazi digute solaskideek.

 **Z. OLEAGA**
 **SHUKARE OTERO**

Aurreko erreportajetik gogoratuko duzunez, sei mintzakiderek ari-tu gara gaiaz: Sara, Mikel, Estitxu, Eguzki, Jesus (izenak aldatu dizkiegu) eta Elena Scaratti. Beraiek edota beraien kideek sentitu izan dituzten min nagusiak aletzea eskatu diegu. "Tripako mina sortzen du jelosiak, bakarrik geratzeko beldurrak, harremanean beste norbait sartuz gero besteak zu berezi gisa sentitze hori galtzeak", dio Estitxuk. Sarak bereak eta bere bi kideenak jartzen ditu mahai gainean: "Nire kasuan min handiena errua da, zalantzarik gabe. Mina eragiten ari zarelako -bera da pertsona-giltzarria Arkaitz eta Maiteren artean eta berak planteatu zuen hiruko harreman modu berria-. Arkaitzek beldurra aipatu digu: "Elementu berria sartzean, non geratzen naiz ni? Gustuko baduzu ni utziko nauzu". Maiteren min nagusia berriz, honakoa: "Ni naiz sartu den azkena, gainera *bollera*, azken pieza naiz eta ezabatzen errazena". Eguzkik ere erruduntasuna jarri du lehen lerroan. Mikel, Elena eta Jesusen esperientzian sufri-menduak presentzia gutxi izan du, jelosiak aipatzen dituzte edonola ere. "Hasieran izan nituen, duela hamasei urte. Ordutik, lehenengo aldiz orain bi hilabete inguru", dio Mikelek; Jesusek bereak ez, harremankide batenak ditu gogoan; Elenak propioak, tarteka oso biziak.

Sistema monogamotik haragoko harreman moduen alde egiteko arrazoietako bat, erlazioen -pertsonen- arteko hierarkiak eta konpetentzia logikak de-

saktibatu nahia da: bikotea eta lagunak; familia nuklearra eta auzoak; "gu" eta "besteak". Baina ez da zeregin erraza, logika monogamoa adierazpide kontaezinak hartu ditzakeen mundu ikuskera baita, naturalizatua duguna.

Zentzu horretan, Sarak nabarmendu du bikotekidea izan eta beste norbaitenganako erakargarritasuna sentitzean sortzen den sufri-mendu klasikoa: "Berri hau maite badut, bestea ez? Bestearekin ez nago ondo?". Bakoitzak sarean eta harremanean duen posizioak ere sor ditzake hierarkiak edo botere harremanak,

**Maitasun askotarikoen
alde egiten dute Estitxuk,
Eguzkik, Elenak, Jesusek,
Sarak eta Mikelek.
Baina ez edonola, ez
edozein baldintzatan.
Elkar zaintzea oinarri beti**

beti ere toki horiek kudeatzeko moduen arabera: batekin bizitokia konpartitzea eta beste batekin ez; harremanetako bat ikusgarriagoa izatea besteen aldean; hiruren arteko pertsona-giltzarria izatea; generoa, klasea, arraza edota praktika sexualak... "Uste dut ikasi dudala, baina egia da hainbat gauza erreproduzitu egin ditudala", dio zintzo Eguzkik. Azken finean, jendartearen presio arautzailea

handia da. Jesusek eta Sarak kontatu digute bi maitasun harreman izan eta etxebizitza horietako batekin baino ez partekatzeak jendartearen lehentasunezko tokia ematen diola.

Nola orekatu desoreka? Denborak edo harreman kopuruak berdintzea bide bat izan daiteke, baina sufri-mendu asko ekarri dezake horrek, egiatan desio ez diren tokietara behartzeagatik nork bere burua edo kidearena. Solaskideak ados daude, ordea: helburua da une bakoitzean pertsona bakoitzak dituen behar eta desioei erantzutea, eta pertsona bakoitzarenak ezberdinak izango dira.

SENDABIDEAK

Lanketa pertsonala ezinbestekoa da minak iraultzeko. "Gako nagusia: utzi zure buruari sentitzen duzuna sentitzen. Onartu, eta hasi hortik lantzen" dio Eguzkik. "Eta sentimendu hori nondik datorren kokatzea ere garrantzitsua da -gehitu du Estitxuk-, niri behintzat batzuetan gertatzen baitzait mina dator-kidala eta harritu egiten naizela, 'non ostiatik atera zait hau?'". Jelosien atzean beti egoa dagoela uste du Elenak, eta sentimenduak arrazionalizatuz lantzen dela hori.

Sufri-menduari kolektiboki heltzea ere ezinbestekoa da, eta hor gabezia handiagoa izan ohi dugu. Laguna jeloskor dagoenean, esaterako, ez utzi bakarrik, bion artean landu, dio Jesusek: "Zalantzak kentzen saiatu, konfiantza



eman, maitasuna mahai gainean jarri". Mikelek bikotekidearekin batera landu zituen harreman hasierako jelsiak. "Sari beste pertsona entzutea baino ez da, bere minarekin konektatzea", dio Sarak. Hasiera bateko min larrienak igarota, Arkaitzi eta Maiteri balio izan diena kontatu digu: "Arkaitzek denborarekin ikusi du maitatua eta zaindua sentitu dela berdin-berdin. Minak edukita ere pozik dago harreman honetan. Maiterekin aitorza bide bat ari gara lantzen, inguruan, lagunekin eta Arkaitzekin".

Kolektiboki heltzea, baina, ez da soilik harremanean inplikaturik dauden artean egitea. Ulertuz edo gutxienik epaitu gabe entzungo zaituzten lagunak eta espazioak beharrezkotzat dituzte, baita bestelako erreferenteak ondoan izatea ere. Batzuek badituzte, beste batzuei ez zaie erraza suertatu horiek aurkitu edo eraikitzea.

Aukeran, minak heldu aurretik horiek aurreikustea eta lantzea litzateke proposena, "baina egia da ondo nagoenean joera dela ez hitz egitea, 'ongi gaude eta zertarako hasi kaka nahasten' logikan", dio Eguzkik. Ez hitz egiteko uneak ere defendatu ditu, dena den; mina bere gor-

dinean dagoelarik, denbora bat emateko aukera: "Minak eta segurtasun ezak lantzeko une egokiena da horiek ez daudenean, ondo gaudenean. Mina duzunean dena puztu egiten baita eta burua argi izatea zailagoa da". Praktika, ordea, bestelakoa izan dute nahi baino gehiagotan. "Sentsazioa dut uneoro inprobisatzen ari naizela. Hanka sartzen joan naizela ikasten", dio Sarak.

POLIMAITASUNA? SEGUN ETA NOLA, SEGUN ETA NOIZ

Bi pertzepzioen artean mugitzen dira gure solaskideak, eta biek sortzen diete ardura. Batetik, diskurtsoak diskurtso, ezer gutxi aldatu dela harremanak eraikitzeari dagokionez; bestetik, zenbait esparru ezkertiarretan ez-monogamia "arau" bihurtzen ari ez ote den. Ezer hausnartu edo politizatu gabe; "sexu-kontsumoa liberalizatuz eta ez maitasuna", dio Elenak.

Maitasun askotarikoen alde egiten dute Estitxuk, Eguzkik, Elenak, Jesusek, Sarak eta Mikelek. Baina ez edonola, ez edozein baldintzatan. Elkar zaintzea oinarri beti; norberaren eta kideen beharren, desioen, ahalen eta ezinen kon-

tziente izanik, ahal dela; kanpoko eta barneko arauak urratzeak eskatu dezakeenaz hausnartuta, aukeran; gozatzea ipar. "Bakoitzak dagoen puntutik abiatu behar du. Teoria oso ongi dago, baina egun batetik besterako talka-terapiarik ez dut nahi", dio Estitxuk, pixkanakako trantsizioen alde. "Mundu guztiak egin behar du bat honekin? Berez da eraldatzailea praktika hau? Bai edo ez, gauza askoren arabera", Sarak.

Aurreko erreportajea hala hasi genuen: kontua ez da gehiagotan eta pertsona gehiagorekin txortan egitea; kontua pertsonen arteko harreman osasuntsuagoak, askatzaileagoak, gozagarriagoak, komunitarioagoak eraikitzea da. Zaintza sareetan, bizitoki kolektibotan eta oro har bestelako bizitza-alternatibak saiatzerakoan agertu ohi diren mugak ere presente daude harreman sexu-afektiboetan. Sendotasun falta, hausnortasun handia, borrokatu nahi diren "kanpoko" miseriak "barnean" iraultzeko ezintasunak. Egitura komunitarioak eraikitzea da erronka eta gure solaskideen gozamen eta sufrimenduetatik, lorpen eta porrotetatik lor ditzakegu horretarako tresna batzuk. ●

IKERGAZTE EGITASMOA

“Euskara beste hizkuntzen parekoa da, baita ikerkuntzan ere”

Ikerkuntzan ari diren gazte euskaldunak biltzen ditu IkerGazte proiektuak. Hirugarren edizioan murgildurik daude eta aurtengo kongresua Baionan izango da, maiatzaren 27, 28 eta 29an. Orotara 111 artikulua zientifiko aurkeztu dira, eta antolatzaileek ekitaldi arrakastatsua izango dela aurreikusi dute. Proiektuak aurrera jarraitzearen beharraz eta bidean topatutako oztopoez hitz egin dugu antolatzaileekin.

GORKA PEÑAGARIKANO
UEU

Hainbat sailetan banatuta dago UEU Udako Euskal Unibertsitatea, egitasmoaren bultzatzailea, eta sail bakoitzaren barnean aspaldidanik egiten dituzte profesionalen eta ikertzaileen jardunaldiak, baina ez zegoen sail guztiak batuko zituen saiorik. Euskaldunak izanik ere asko ez ziren euskaraz aritzen, eta arazoa hor ikusi eta hortik hasi ziren lanean. Ikertzaile euskaldunen sarea egitearen beharraz mintzatu zaigu Ainhoa Latatu IkerGazte proiektuaren koordinatzailea: “Gabezia orokorrean genuen, ez ikerkuntza alor zehatzetan bakarrik”.

Idea duela hamar bat urte sortu arren, krisi ekonomikoa eta UEUren egoera ahula tarteko, asmoak praktikara pasatzeko unea 2015ean iritsi zen. Oro har, euskaraz jarduten zuten ikertzaileak biltzea zen xedea, elkar ezagutu eta gizarteari erakustea euskara ere baliagarri dela ikerketak egiteko. “Hutsune bat betetzera zetorren”, dio Miren Josu Omaetxebarria proiektuaren zuzendariak. Eta betetzen doa hutsune hori: gorantz egin dute euskarazko ekoizpenek.

Nazioartekotzea izaten dute helburu ikerkuntza gehienek, eta euskarara baino, erdarara jo ohi dute ikertzaileek.

Alabaina, badaude euskal ikerlariak; argi utzi digute Omaetxebarriak eta Ainhoa Latatuk. Duela hamar bat urte piztu zen kongresua egiteko ideia Udako Euskal Unibertsitatean, eta 2015etik hona hiru edizio antolatu dituzte; aurtengoa, Lapurdin izanik, IKER Baionako ikerlarien zentroaren laguntzarekin. Ikerkuntza lanak edonoiz jasotzeko prest dauden arren, bi urtean behineko maiztasunarekin egiten dituzte kongresuak: lehena Durangon egin zuten 2015ean, 2017an Iruñean eta aurtan Baionan. Hiru egunetan nazioarteko ikertzaileen hitzaldiak, tailerrak, aurkezpenak eta beste hainbat ekintza egingo dira Errobiko Campusean, eta lo egiteko tokia ere eskatu ahal izango da. Maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik izena emateko epea.

EUSKARAREN PRESENTZIA

Ikerkuntzaren egunerokoa ez da euskalduna. Talde edo multzotan egin ohi dira lanak, eta bizitzako beste alorretan bezala, aski da batek euskaraz ez jakitea atzerriko hizkuntza batera jotzeko. Oro har, lanak ingelesez edo espainolez egiten direla dio Omaetxebarriak. Behin argitaratu ondoren, lanak nazioartekotu eta gizarteratu nahi izate horrek eragin

handia du lanaren hizkuntza hautatzeko orduan, hala uste du zuzendariak. Publiko arrunt eta anitzarengana iristea da helburuetako bat, baina horrez gain, nazioarteko gainontzeko ikertzaileengana iristea ere oso garrantzitsua dela adierazi du: “Ikerketa lanak mundu mailako komunitate zientifiko baten barruan egin ohi dira, ondoren aurkikuntzok nazioartean argitara emateko; argitalpen horien itu dira mundu mailako alor bereko beste ikertzaileak”.

Dena den, IkerGazte proiektuarekin hasi zirenetik ikuspuntu baikorragoa dutela esan du: “Oso barnetatuta genuen mundura begira egin beharreko lan oro ingelesez izan behar zela, baina ikusi dugu Euskal Herrira begira ere egin daitekeela, eta beraz, euskaraz ere egin liteke; euskara beste hizkuntzen parekoa da, baita ikerkuntzan ere”.

ERREFERENTZIALAK IZATEKO BIDEAN

Hirugarren edizioa dute dagoeneko, eta geratzeko heldu dira. Ondo bidean doazela uste dute bi elkarrizketatuek. “Bel-dur ginen ea aurtan ere mantenduko ote genituen ikerkuntzen aurkezpenak, eta hala izango da: beharra dagoela esan





IKERGAZTE 2017. DUELA BI URTE IRUÑEAN IZAN ZIREN IKERTZAILE EUSKALDUNAK. BIGARREN ARGAZKIAN JOXE RAMON ETXEBARRIA, ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA EUSKARAZ EMATEKO URTE LUZETAKO AHALEGINA EGIN DUEN IRAKASLEA.

nahi du horrek, eta geratzeko eta jarraitzeko eskatzen digute ikertzaileek”, dio Latatuk. Balorazio positiboa egiten dute UEUn, kongresuak bi urtean behin antolatu arren, tartean ere jasotzen dituztelako euskarazko artikulatuak. Argitaratzeko beharra oraindik ere badagoen seinale, beraz.

Sortzera bultzatutako eta hasieran finkatutako helburuak ez direla aldatu diosku Omaetxebarriak: “Sei urteko ibilbidearekin eta hainbat ikerlariaren ekarpenekin oinarri bat finkatzea lortu dugu, baina ez gara aldendu hasierako helburuetatik: euskarazko ikerkuntza lanak sustatzen jarraitzen dugu eta jarraitu nahi dugu”. Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa dagoela dio, egungo ikerlari gazteek euren lanak euskaraz idatzi eta pasatzen dizkietela gazteagoei, ondoren datozeinei. Hartara, IkerGazteren berri izaten dute.

Edizioz edizio euskarazko ikerkuntza argitalpen kopuru esanguratsu bat ateratzen da IkerGazte proiektuaren kongresutik. Ikertzaileen partetik ez ezik, Euskal Herrian kokatzen diren unibertsitate, ikerketa zentro eta aldzikarien esker ona jasotzen dute, eta babes horri esker aurrera jarraitzeko grina pizten

zaiola dio Latatuk: “Denek egiten dute bat proiektu honetan, eta uste dut daukagun herri ikuspegiak oso garrantzitsu dela egiten duguna”.

AINHOA LATATU
IKERGAZTEKO KOORDINATZAILEA

“Beldur ginen ea aurten ere mantenduko ote genituen ikerkuntzen aurkezpenak, eta hala izango da: beharra dagoela esan nahi du horrek, eta jarraitzeko eskatzen digute ikertzaileek”

DURANGO, IRUÑEA ETA BAIONA

Prest dago dena Baionarako. Hirugarrenez egingo da IkerGazteren kongresua, eta Ainhoa Latatu hirugarrenez izango da bertan. Atzera begira jarrita, lehen ediziotik hirugarrenera kontuak asko aldatu direla dio: “Gauza batzuk aldatu egin dira formatua ere aldatu egin dugulako: tokiz hainbeste aldatzeak, adibidez, eragina izan du”. Euskal Herri-

ko hainbat txokotatik mugiarazten dute jendea, baina batik bat, aurreko urteetako datuak aintzat hartuz, jende gehiena gipuzkoarra eta bizkaitarra da, eta gutxienak Iparraldekoak.

Toki informaletako harremanak sustatzeko asmoz, garrantzi handiagoa eman diote lo egiteko lekua eskaintzeari. Kongresu “serioaz” harago, harremanak egiteko leku aproposa dela uste dutelako, kideak ezagutu eta etorkizunari begira proiektuak martxan jar daitezkeelako. Beste ediziotan ere eskaini zuten lo egiteko lekua, baina Durangon adibidez ez zuen arrakastarik izan –joan-etorriak egin zituen jende gehienak-. Kontuan izanda partaide gehienak Gipuzkoatik, eta urrunagotik Bizkaitik, mugituko direla, parte-hartzaileek errazago jo dute Baionan geratzera, eta nabarmen egin du gora zerbitzua eskatu dutenen kopuruak.

Egitara beste urteetako tanke-rakoa dela dio Latatuk. Egunko lehen ordutan hitzaldi nagusiak egongo dira, ikertzaileen aurkezpenak ondoren, eta bestelako saio osagarriak tartean: tailerrak, Baionako gaztetxe mugimendua ezagutzera bisita eta Euskal Herria Zuzenean festibalaren antolakuntza barne-tik ikustera joatea, besteak beste. ●

Ertzetako biolentziak euskal gatazk(et)an

Maidar Galardi F. Agirre kazetari eta ikerlariak orain arte ikusezin izandako emakumeei eman nahi izan die ahotsa bere ikerlanean eta horretarako bederatzi elkarrizketa sakon egin ditu. Ikerlanaren izenburuak zehazten du zertaz hausnartu duen: *80-90 hamarkadetan senide eta lagunak gatazkaren erdigunean izan zituzten andreen memoriaren eta praktika erresistenteen bilketa feminista.*

 ANE LABAKA MAYOZ

Ikerlanaren hasieran dioenez, guztiak ez dira gatazkaren alde berean kokatu eta honek aberastu egin du ikerketa. Errefuxiatu baten arreba, sasia dagoen iheslari baten ama, espetxeratu batena, kartzelatik atera berri den baten bikotekidea edo ETAk hildako baten laguna izateak esperientzia mota ezberdinak eman dizkio bakoitzari, baina hala ere, emakume izateak eta, ondorioz, gatazka “periferiatik” bizi izanak, hainbat aldagai komun ere eman die.

Galardiren arabera, emakumeen presentzia eskasa da bizikidetzara forroetan eta gatazkaren ondorioei heltzeko jardunaldietan. Gainera, euskal gatazkaren subjektu feministen inguruan hainbat ikerketa burutu diren arren, orain artean, emakumeak izan arren ere, soilik lehen lerroko protagonistei eman zaie ahotsa eta ez da egin euskal gatazka transbertsalki genero ikuspegitik landu den proposamenik.

Ikerketaren helburu nagusia, beraz, gatazkaren konponbide prozesuan egiten ari den bizikidetzara ariketetan eta memoria kolektiboaren bilketan orain arte bigarren lerroan egon diren andreen kontaketa jaso eta beraiek izandako parte-hartze soziopolitikoa ezagutaraz-

tea da. Orain artekoaren berrikuspenera proposatu nahi du ikerlariak, biktimaz azaeraz harago andre hauek subjektu politiko gisa ikusaraziz, etorkizunean memoria kolektiboaren irakurketa osatua goa egiteko oinarri feministak zeharlerro gisa ezarri daitezen.

GATAZKAREN MEMORIA ETA MEMORIAREN GATAZKA

Galardiren hitzetan, “gurean gatazka bat eta bakarra izan da aitortua eta honek ikusezin egin ditu beste hainbat”. Gerra logika nagusi izanik (garaile vs. garaitu; alde bat vs. bestea) kontaketa zuzen eta sinplifikatua egin da ardatz bakarraren baitan eta, ondorioz, hainbat ertz eta aldagai kanpoan utzi dira. Gatazkaren eta biolentziaren irakurketa androzentrikoa eginda, lehen lerro horretan parte hartu duten kideen kontaketa soilik jaso da eta ikusezin bilakatu dira gatazkaren parte izan diren beste hainbat subjektu; batik bat, emakumeak. Hauek gatazkaren parte baina, gatazkaren ondorio gisa identifikatu dira.

Horrela, emakumeak bi aldiz izan dira jazartuak. Lehenik, gatazka garaian emakumeen aurka biolentzia forma berezituak erabili direlako (sexu abusuak,

bazterketa, bortxaketa...) eta bigarrenik, bake prozesuetan egitura heteropatriarkalak iraunarazi direlako.

Aktore nagusi diren gizonen artean talka nabarmen bat dago egun, memoriaren edo errelatoaren hegemonia lortzeko nahiak sortutakoa. Aurrez esan bezala, ardatz bakarra kontuan hartuta, ardatz horren baitan kokatzen dira bateko eta bestekoak eta ardatz horren arabera aitortzen dizkiote (edo ez) biktimak elkarri. Kontua da, ordea, beste ardatz bati erreparatu eta genero sistemaren arabera rolen bereizketa kontuan hartuz gero, historia guztiz aldatuko litzatekeela, alde bateko zein besteko emakumeen esperientzia antzekoa izan daitekeelako.

Galardiren aburuz, adibidez, “antzekotasunak egon daitezke senarra bisitatzean funtzionario baten etengabeko ukipenak eta kontrola pairatzen dituen emakume baten eta senarra politikaria delako egunero bizkartzaina izan behar duen emakume baten bizipenen artean edo ETAk lagun mina hiltzean lagun sareak huts egin ziolako lekualdatze bat bizi izan zuen emakumearen eta zaintzen jarraitu ahal izateko Iparraldera lekualdatu behar izan zuen emakume baten artean”.



LEHEN LERROA ETA ATZEGUARDIA

Genero sistemaren arabera egituratu-tako espazio banaketaren ondorioa da emakumeak gatazkaren bigarren lerro ikusezinean kokatu izana. Atzeguardia hau, noski, eginbehar feminizatu-ekin lotzen da, intimitatearekin eta kolekti-bizatu ez diren bizipen indibidualekin.

Hainbat ikerlarik dioenez, gatazka garaian are muturrekoago bihurtzen dira generoen arteko ezberdintasunak. Gizonezko militantearen papera-ri emakumearena kontrajartzen zaio: lan erreproduktiboak, zaintza lanak... bere gain hartzen dituen ama edo baldintzarik gabeko bikotekidearen pa-pera, egun osoko militante gizonak eta egun osoko emakume zaintzaileak polarizatuz (Zuriñe Rodríguez, 2016).

Elkarrizketatuetoako zenbaiti eroso egiten zaie emakume zaintzailearen ro-larekiko atxikipena, naturalizatu eta are esentzializatu ere egiten dute. Ama direnek kontatzen dute kartzelan da-goenaren sostengu izan direla; beraien esku egon da bisitetako zerrenden ku-deaketa, abokatuekiko eta herriko miti-tanteekiko harremana, eta abar. Gaine-ra, adierazgarria da elkarrizketatuetoako batek kontatzen duena: herrikideek ez bezala berak izugarritzko lasaitua har-tu zuen semea atxilotu zutenean, es-petxean egonda bera zaintzeko aukera izango zuelako. Galardiren galdera ho-nakoa da: “Lehen lerroko gizon horiek kartzelara sartzean zein bihurtu dira lehen lerro?”.

Beste zenbaitentzat, berriz, gataz-ka iturri da emakume zaintzailearen ro-larekiko atxikipen derrigortua. Es-petxean dagoenaren bikotekidea izan-da, haiek utzi edo “abandonatu” ezina sentitu dute maiz, eta elkarrizketatuetako batek, esaterako, hasierako bisitetara militante gisa joan arren in-gurukoek bikotekidetzat hartu izana salatu du.

Adibide hauek argi uzten dute iru-diteria oso bat dagoela atzean, emaku-me hauei kontaktetan elementu aktibo izateko gaitasuna kendu diena. Ho-rrexegatik da ikerlariaren ustez ga-rrantzitsua aitortzea baietz, gatazkak eragin egin diela eta zuzenean, nahiz eta “bigarren lerroan” egon. Gainera, biolentzia bi zentzutan pairatu dute-la aitortu behar da: bai biolentziaren kontzeptu hegemonikoa kontuan har-tuz, baita biolentziaren kontzeptua ikuspegi feministatik berrikusiz ere.



LUIS JAUREGATZU/FOTU

PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOAREN ETA BIOLENTZIAREN KONTZEPTUAK BERRIKUSTEN

Ezbairik gabe, agente aktibo izan dira, nahiz eta beraiek egokitutako rol bat betetzeko asmoz jokatu izana sentitzen duten. Galardiren hitzetan, “maitasu-na jarri dute denaren gainetik, baina maitasun hori ere politizatu egin behar da”. Kontziente dira egin dutenaz, baina barneratuta daukagun parte-hartze poli-tikoaren kontzeptualizazioa tarteko, ez dute horrekin lotzen. Plazan dagoen jendea, pankartari heltzen diona, miti-nak botatzen dituen, modu antolatua go batean parte hartzen duena dute parte-hartzaitzat, eta beraiek egindakoa ez dute hala ulertzen: medikuak lotzea, Iparraldera bisitan joan eta janari mor-doa eramatea...

Bistakoa da politikaren adiera zurru-na, hegemonikoa eta ustez neutroa (hau da, maskulinizatu) erabili izan dela eus-kal gatazkaren aktore politikoak zehazte-ko: militanteak, politikariak, enpresariak, polizia... Emakume gehienek parte hartu dute eta saretu dira hainbat elkartetan, batez ere euren egoera berean dauden emakumeekin (Etixerat, ETArekin biktimen elkarteak...) baina elkarte horiek ere ge-nero sistemaren arabera egindako lan banaketarekin oso lotuta egon dira. Ala-baina, ezin da ukatu andre hauen parte-hartzea bai maila publikoan baita egunerokoan aurrera eraman beharreko praktika erresistenteetan ere.

Antzera gertatzen da biolentziaren kontzeptuarekin ere. Indarkeria egoera-

ren bat bizi izan duten galdetzean, ezetz diote. Sakontzen hastean kontatzen di-tuzte, ordea, Guardia Zibilaren miake-tak, jarraipenak, funtzionarioen ukituak, aurkarien lintxamenduak pairatu dituz-tela.

Aitorpen ezak bi norabide ditu. Bate-tik, beraiek dira euren buruari eginda-koaren garrantzia aitortzen ez diotenak, eta bestetik, kanpotik ere ez dute inolako aitorpenik jaso, ez maila instituzionalean ezta talde bereko kideen aldetik ere.

Galardirentzat, “gatazkaz baino ga-tazkez hitz egin beharko litzateke”. An-dre horiek ere gatazka bete-betean bizi izan dutela aitortuz eta areago, andre izateagatik gatazkak beraiegan aldagai berezituak izan dituela azpimarratuz.

Soilik gizonak, espazio publikoko pro-tagonistek, dute biolentzia jasan izanaren aitorpena. Baina biolentziaren hamaika ertzi erreparatzea komeni da, ezkutukoa-ri leku eginez. Izan ere, alde bateko zein besteko emakumeek jasadako biolen-tziak antzeko patroiak ditu sarri. Hasteko, bietan bizi izan dute emakume izateagatik propio jasadako indarkeria sexualizatu-a. Aurkakoen indarkeria nahiz talde barru-koa (askotan mingarriago zaiena) jasan dute andre hauek: hiper-sexualizazioa, irain sexistak, mehatxu konkretuak, heda-bideen trataera...

Patroiak errepikatzeak hautsi egiten du gatazka armatuaren alde biko logika. Biolentzia bikoitza eta gurutzatua da, beraz: batetik, kolektibo konkretu ba-tean kokatu dituztelako (ez dira haiek berariaz kolektibo horren barruan ko-



GIZONAK LEHEN LERROAN

2018ko argazkia da. Nazioarteko konferentzia Kanbon, ETaren amaieraren hurrengo egunean. Argazkian dira, besteak beste, Brian Currin, Andoni Ortuzar, Jean Rene Etchegaray, Arnaldo Otegi eta Maddalen Iriarte. Maider Galardi ikerlariaren arabera, emakumeen presentzia eskasa da bizikidetza foroetan eta gatazkaren ondorioei heltzeko jardunaldietan.



APENAS EMAKUMEAK LEHEN LERROAN DIREN

Ane Muguruza, Josu Muguruzaren alaba eta Rosa Lluch, Ernest Lluchena alaba haien testigantzak eskaintzen Bilbon, 2018an, Foro Sozialak antolatutako ekitaldian.



JON URIBE / FOKU

katu) sufritzen dutena eta bestetik, emakume izanik genero sistemaren arabera rol gutxiesgarrietan kokatu dituztelako pairatzen dutena.

Bi kokatze hauen ondorio dira bizi izan dituzten bortxazko egoerak: biolentzia psikologikoa (beldurra, kontrola, ezegonkortasuna...), familia eta lagun giroko ondorioak (espazio pribatuaren aldaketa, biziraupen sareen hausturak...), enplegu arloko bazterketa, bizitza duina ez izatea eta identitate kulturala ukatu beharra (identitate propioa alboratzea, jatorrizko giroetatik aldentzea...). Galardik isiltasunaren diziplina eta kalte ekonomiko handiak ere gehitzen ditu zerrendara.

EGUNEROKO PRAKTIKA ERRESISTENTEAK

Andre hauek ekintzarako gaitasuna duten subjektu gisa irudikatu nahi izan ditu ikerlariak eta agentzia aitortzeaz gain, boterea ere badutela aitortzen du, "bizitza egokitu zaien egoera eraldatzeko asmoa (kontzientea batzuetan, inkontzientea besteetan) badutelako".

Galardik egunerokoan egindako praktika eta aldaketa txikiak ditu hizpide, gutxienez egoera orekatzeko, eta kasu batzuetan, iraultzeko mekanismoak. Egunerokoan egoera biolentoei aurre egiteko estrategiak garatu dituzte: autoritateari aurre egiteko estrategiak (poliziak etxea miatzerakoan, funtzionarioak bularretakoa kentzeko eskatzean, herritarrek bizkarra ematean...) nahiz egoera gatazkatsuetatik

irteteko moldeak asmatu dituzte. Denek aipatzen dute, esaterako, tarteka beraien egoera latzetik at kokatzeko aukeren beharra. Bestalde, babes sareak ezinbestekotzat dituzte, norberaren bizipenak modu kolektiboan lantzeko espazioak: militantzia sarea nahiz hurbilekoen sostengua.

Honekin lotuta, adierazgarria da elkarriketatueta lauk eskatu diotela ikerlariari elkarriketa beraien babes sareko partaide baten aurrean egitea.

"HAU EZ DA GURE BAKEA"

Nazio Batuen Erakundeak 13/25 ebazpena kaleratu zuen 2000.urtean andreei bakea eraikitzeke egin beharra esleituz, berezko osagaia balute bezala. Esleipen horrek, bistan denez, indartu baino ez du egiten aurrez aipatutako genero sistemaren arabeko rolen banaketa. Nazioarteari erreparatu, ugari izan daitezke azken bi hamarkadetak erreferentziak: Kolonbia, Guatemala, Mendebaldeko Sahara... eta badira zenbait ikerlari nazioarteko gatazka armatuen ondorioak genero ikuspegitik lantzen dihardutenak, adibidez, Irantzu Mendia.

Euskal Herrian, aldiz, Frantziako Estatuak eta batez ere espainiarrak ez dute Euskal Herrian jazotakoa gatazka izan denik onartu, ezta alde bat baino gehiago egon direnik ere, eta horrek eragin zuzena dauka genero ikuspegitik aztertzeko zailtasunean. Galardik dioen moduan, ikuspegi feminista txertatzea ez da bakarrik gatazkan parte hartu duten

emakumeei ahotsa ematea, gatazka bere osotasunean kuestionatzea baizik.

"Balizko bake egoera baterantz trantsizioa ematen ari dela uste da" dio Galardik, "baina gizonak bakarrik ari dira bakea eraikitzen, beraiek dira subjektu aktiboak, berriro ere emakumeak ikusezin bihurtuz eta genero rol eta estereotipoak are gehiago indartuz".

Gatazka politikoaren ulerkera androzentrikoagatik gatazka armatuaren (eta bere ondorioen) irakurketa planoan egin da, oposizioan eta polarizatuta dauden bi lerroen kontaketa. Kontrara, Galardiren esanei jarraiki, hamaika gatazka gurtzatu dira gurean ere. Emakume hauek eztabaidaren periferian daude uneotan, baina gatazka beren egunerokotasunaren zentroan egon da, eta dago. Hala ere, epika handiaren kontakizunetatik urrun geratu dira eta min pertsonala "politikotzat" ulertzeko zailtasunak dauzkate.

Sexu/genero sistemaren aldagaia kontuan hartu eta gurtze bat eginez, bi aldeetako andreak jasandakoak antzeko formak izan ditzakeela ohartuko gara, patroiak eta kontaktak oso antzekoak direlako. Ikerlariak honako galdera luzatzen digu: "Zer gertatutako litzateke errelatoa Espainiako eta Frantziako Estatuaren aldeko eta ETaren aldeko kideen arteko bereizketa eginda beharrean gizon-emakumeen arteko bereizketaren arabera osatuko bagenu?"


Ikuspegi honetatik behatuta, gakoa ez dago lerroen arteko bereizketa egitean, genero sistemaren arabeko bereizketa egitean baizik. ●

SENDAGILEEN ZUHAITZ KONTUAK

Zenbat zuhaitz dituzue biztanleko zuen hiriko ondare inbentarioan? Zenbat diru gastatzen da zuen herrian zuhaitzen osasunean?



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Zuhaitzak hirietan. Jendea pilatuta eta bizi baldintza txar edo oso txarretan bizi diren tokietan zuhaitzak ere ez dira bikaintasun betean biziko, baina lagunen aldean ederki moldatuko dira. Lurrean denetik aurkituko dute: eraikuntza materialen hondakinak, produktu kimikoen salda deskribaezinak, birfossilizatzen ari den petrolioia, gure arnasketa eta elikadura kutsatuak laburbiltzen dituzten ur zikinak eta abar. Eta airean, zer esanik ez: autoen eta etxeen eta lantegien ke beltz jasa, erraustegien kebidetako ke adar hiltzailea eta abar.

Zuhaitzak izorratuko ditugu, baina geu hil egingo gara. Horixe da paronama. Beltzik gorriena. Gure hiri zatar horietan biximodua eramaten duten lagunen iraunmodua hobetze aldera, zuhaitzak landatzea oso eraginkorra dela dio gero eta jende gehiagok. Gure osasunerako

zuhaitzak onak direla esan beharra ere! Alkate, zinegotzi, urbanista eta horrelako ugarik behar dute. Errepikapenaren errepikapenaz, errepikapenaren errepikapenaz sartzen zaie. Eta hirietan kontuhartzaileek eta soilik zenbakiak ikusten dituzten era guztietako teknikariek hagintzen dutenez... Zuhaitzek ez beste gauza guztiek dute munta. Zenbati daitezkeenak, zenbaki zurbiletara eraman daitezkeenak. Adi! Gainontzean kontuz ibili, izan ere kontuhartzaileak kontuhartzailetza bulegoko kontuhartzailearen besaulki erosotik kontuak hartuko dizkigu. Bada orain zenbakitara eramaten ari dira osasunaren kontu horiek. Diote hirietan urtero biztanleko 5 euro inguruko inbertsioa eginez ikaragarri hobetuko litzatekeela zuhaitzen egoera. Eta noski hiritarrena. Hona errepikapenaren pleonasmoa hauteskunde

aurre honetan: zuhaitz sanoak boto-e-mailearen osasuna hobetzen du.

Egunen batean zientzialariek neurriak hartu eta neurtuko dituzte eta zenbakien diktaduraren aktetan jarriko dituzte noraino onak diren zuhaitzak boz emaileen osasun fisikorako, eta zenbateraino onak diren zuhaitzak hauteslearen osasun mentalerako. Orduan, diruaren eraginkortasunaz hitz egiten dugunean, baldin eta ganorako jendea bada hagintean, gizarte segurantzak, Osakidetzak, Osasunbideak edo dena delakoak izango du hirietako zuhaitzen gaineko eskuduntza. Eta arduratuko gara. Zenbat zuhaitz dituzue buruko zure hiriko ondare inbentarioan? Zenbatsu diru gastatzen da zure herrian zuhaitzen osasunean? Bihar bertan gureko udaletxera noa kontu hartzera, kontuhartzaileari. ●

JOSE RAMON OLARIETA ALBERDI

"HAZIEN MERKATUA KONTROLATZEA DA TRANSGENIKOEN AZKEN HELBURUA!"



IDOIA ZABALETA / FOKU



GARAIZABALETA

Inginiaritzaren agronomoan doktoratua eta Lleidako Unibertsitateko irakaslea da Jose Ramon Olarieta Alberdi, baita Som lo que Sembrem elkarte katalaneko kide ere. Transgenikoen inguruan liburu argitaratu zuen iaz: *Transgenikoak, benetan dira segurua eta beharrezkoak?* Leitzan eta Elizondon (Nafarroa) hitzaldiak eman ditu apirilean, LeitzEKO Kontsumo taldeak eta Hazitik Hoziek gonbidatuta. Transgenikoek osasunean, ingurumenean, alor sozialean nahiz ekonomikoan eragiten dituzten kalteen inguruan solastatu zen Olarieta. Beharrezkoa da, haren ustez, genetikoki eraldatutako organismoen erabileraren kontrako argudioak zabaltzea, zientziaren mundutik gehienetan aldeko diskurtsoa soilik entzuten baita.

EZ SEGUURAK...

Elikagai edo produktuak merkaturatzeko zentzuzkoa dirudi horiek hainbat frogasatu behar izatea, ingurumenean edota osasunean izan ditzaketen kalteak aztertzeko. Olarietak salatu du transgenikoak merkaturatu baino lehen ez dela eraginen inguruko inolako ikerketarik egin. "Behin eta berriz diote ez dela frogatu transgenikoak osasunerako kaltegarriak direnik, baina benetan lotsagarria dena da produktuok merkaturatu aurretik osasunean duten eragina ez aztertu izana".

Hiru motatako transgenikoak daude egun merkatuan: herbizidei tolerantak, intsektiziden ekoizleak eta aurreko bi ezaugarriak batzen dituztenak. "Inoiz ez dizute esanen artoak intsektizida bat daramala, baina horrela da benetan: artoa jaten baduzu intsektizida ere jaten ari zara", azaldu zuen agronomoak NNPEK Nafarroako Nekazal Produktzio Ekologikoaren Kontseiluaren webguneko elkarrizketan. Nafarroan 7.200 hektarea inguru arto transgeniko daude landatuak.

... EZ BEHARREZKOAK

Transgenikoei ezetz esateko arrazoi oinarritzkoena, Olarietaren ustez, hau da: ezertarako ez ditugula behar. Munduko goseari aurre egiteko teknologia direla diotenei, zera erantzuten die: gosea ez dela arazo, arazo orokorrago baten sintoma bat baizik. Alegia, gosea ez dela existitzen munduko biztanleak asetzeko adina janaririk produzitzen ez delako, aberastasuna banatzen ez delako baizik.

Zein da, orduan, transgenikoen alde egiteko arrazoiak? Argi du Olarietak: "Haziak patentatuz, horien merkaturatzea da helburua". Milioiak mugitzen dituen negozioa dago transgenikoen atzean, eta hor nagusi dira multinazional gutxi batzuk. "Kapitalismoak garamatzen nekazaritza, ikerkuntza edo kontsumo eredu horretarako pauso bat gehiago dira transgenikoak". ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

MAIATZAK 10

TOLOSA

Sendabelar ikastaroa.
17:30ean Guki ekogunean.
Harremanetarako:
egoitzgarro@yahoo.es.

MAIATZAK 10

TUTERA

Nafarroako Ekologistak Martxanek sariak banatuko ditu eta ekitaldia hasteko, Joaquín Araujok hitzaldia emango du (gaztelaraz): *Zaindu ditzagun lur emankorrak*.
19:00etan kontserbatorioan.

MAIATZAK 10

ABADIÑO

Aralar, mundua leku den lurra dokumentalaren emanaldia.
19:00etan Kultur Etxean.

MAIATZAK 11

ARAMAIO

VII. Lorabarri Azoka. Aramaioko produktuak eta Euskal Herriko ekologikoak salgai.

MAIATZAK 11

LA PUEBLA DE LABARCA

Azoka. Bertako upategien mahaiak, janaria eta musika egun osoan zehar. Batelen estropadak ibaian.

MAIATZAK 11

ZEANURI


Behi, zaldi eta ardi azienden erakusketa. Eskualdeko nekazarien elikagaien salmenta eta artisau produktuak.

MAIATZAK 11

IRUN

Sagardo eguna.

1982ko abenduaren 12a



KOLDO IZAGIRRE

Jasanezina da mundu hau, utikan etorkizuna, norberaren plazera lehenik... Heroinak kontrakar handiak sortu zituen gizartean eta norbanakoaren barruan 1980ko urteetan. Mendebalde mailako arazoa izan zen, Hego Euskal Herrian estatuarekin geneukan gatazka moldeak ezaugarri bereziz bertakotua. Hainbat kausatan solidarioa izaten zekien herritarra epaiketa moralera lerratu zen: heroinomano, drogata, eskoria, jonki. Ohartu orduko, apurtzaile nihilista hura adikto bihurtua zen: gizartea ukatetik eta indibidualtasuna kantatetik marginatuen multzora igaro zen, gizartearenak baino are lege gogorrago, zorrotzago eta ankerragoekin. *No future* haiek bestelako pintaketek estali zituzten, gameluak kanpora, auzoan drogarik ez. Ikuspuntu moralari, nork esan, poliziaren presentzia eta arreta medikoa eskatzen zuten aldarriak batu zitzaizkion, irtenbide bila. Ezker abertzaleak, parlamentuaz ateko indar politiko nagusiak, alor bakarreko arazo gisa tratatu zuen: droga gazteria borrokalaria suntsitzeko arma bat da, heroinazalea erosle izatetik ingurua kutsatzen duen saltzaile izatera heldu da erosten jarraitu ahal izateko, eta debekatua dagoen produktua saltzeko debekatzailen onespina behar duenez, saltzailea salatari bihurtzen da ezinbestean. Usteltzaile, salatari, kolabo, etsai. Aldi berean, guztiaren azpitik eta legearen gainetik estatuaren indar armatuak negozioa kontrolatzen noizbehinkako dekomisoekin eta hurrengo urtealdietako kokaina bideratuko zuen hornidura sare beldurgarriarekin. Heroina arazo sozial handia izan zen, eta inork ez zuen gisa horretan hartu. Trafikoari ez ikusia eginiko estatuak xirringak ukatzen zizkien heroinazale gaixotuei, baina ez dauka bere burua erruduntzat. Eta ez ditu inoiz aitortu gatazkaren biktimatzat. Gizarteak ere ez, egia esan. ●

ANTTON OLARIAGA

Marrazki bidezko kazetaritza

MIREN OSA GALDONA

Harri bat zingirara botako balu bezala bidali zituen lehen lanak Antton Olariagak *Zeruko Argiara*. 1972. urtea zen, frankismoa gainbeheran zegoen, eta ordu arteko egoera soziala medio, “dena egiteko” zegoen garaia zen, bai euskal prentsa idatzian behintzat: aldizkarien eta egunkarien diseinua oso klasikoa zen, hitzetara mugatua. Komikigintzak eta sormen artistikoak egun euskarazko prentsan lekua izatea Olariagari ere zor zaio.

Euskal Herritik kanpo bizi zenean hasi zen *Zeruko Argiarekin* kolaboratzen, aldizkariak egunkari formatu klasikoa zuen garaian. Bere lanek lekua izan zezaketenik ere duda egiten bazuen ere, euskaraz txisteak kontatzeko ezinegonak bultzatuta bidali zuen lehen gutuna Donostiako erredakziora. Harridura handiz jaso zuen erantzuna: gai sozialak jorratuz umorezko lan haiek argitaratu egingo zituzten. Lehen urratsa baino ez zen, ibilbide oparo baten hasiera: erreskadan etorri ziren orrialde oso bat betetzeko zeregina, *Mozorrozko* eta *Hormaspray* pertsonaiak, ARGIA eraberrituaren azalak diseinatzen hastea eta sagardotegi sasoia iragarritz kartelak egitea... Gaiak lantzeko orduan inspirazioa, esaterako, Frantzia aurkitu izan duen arren, Hernanitik Donostiara garraio publikoan bidaia bat egitea baino ez dagoela dio edozerri buruz marraztu ahal izateko, zer esanik ez mugikorrek gizartea irentsi duten garaiotan.

“Honetatik” bizi nahi zuela-eta, ahalegina behintzat egingo zuela esan izan die monigotegile hutsa zela uste izan dutenei. Komikigile bat beti izango baita marrazkiak baino egiten ez dituen norbait publiko jakin barentzat; artearen bidez dirua irabaztea zilegi ez balitz moduan. Euskal kulturgintzan jardun izan den edozein sortzailek pairatu behar izan dituen zailtasun berei egin behar izan diela aurre dio, baldintza ekonomiko kaxkarrei batez ere. Halaber, behin




Ilustratzailea 1978an, bere pertsonaiez inguratuta.

sorkuntza munduaren onarpenera eta sari ugari jasota, lana egiteko motibazioa “bikoiztu ala hirukoiztu” egin zaiola dio. Energia hori baliatuz, ia 40 urte daramatza paperari bizia emanez. Ordenagailua eta kolorea “berrikuntza izugarria” izan dira, lana egiteko modua eta ohiturak aldarazi baitizkio. Gakoa, ordea, maiztasuna dela dio, entrega data izateak “adrenalina eta presio” puntua gehitzen baitio sormenari.

*Bizi Baratze*arako ere ilustrazioak egiten ditu azken urteetan. Joko-zelai berri bat izanda ere, “gogoz eta gustura” dabilela dio, beti izan baitu gauza berriak ikasteko grina: “ARGIAren mendeak mila urte eman dizkit niri. ARGIAri esker euskaraz lan egiteko aukera izan dut eta une oro nahi nuen esaten utzi didate, sorkuntzarako askatasuna utziz”. Ez da gutxi zuk aldizkari honi emandakoa, Antton. Edukiei izaera eta bizia eman zenien dena grisa zen garaian, horren aldeko apustua inork gutxi ziurtatzen zuen aldian. Jarrai beza hala izaten beste urte luzetan, Antton! ●

MENDEURRENA OSPATZEKO EKITALDIA

Hurrengo helburua, Leurtzako urtegia



Eñaut Aiertzaguenak eginiko irudietan,
Leurtzako urtegi inguruan aurkitzen
saiatuko garen anfibio eta narrastiak.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Aitzakia ederra topatu dute urte oso-rako ARGIAko hauek". Horrela, hain gordin, esan dit lagun batek ostiralean pote pare bat hartzen ari ginela, mendeurrena ospatzen jarraitzeko maiatzerako antolatuta dagoena kontatu diodanean. "Normalena litzateke horrelako urteurren batean, konpromiso denek erosi baina gero inork irakurriko ez lukkeen liburu potoloren bat argitaratzea ARGIAk; baina zuek ez, zuek egun pasak egiten dituzue, Iruñera, orain Leurtzako urtegiara... eta bide batez, bazkaltzera".

Arrazoi eman diot, berak ironia puntuarekin bota duenari buelta emanez. Ez al da aitzakia benetan polita, horrelako gauzak antolatzeke, komunitatea indartzeke, elkar ezagutzeke, harremanak sendotzeke eta gure bazterrak ondo ezagutzen dituztenen laguntzaz bisitatzeke? Iñaki Sanz Azkue eta Ander Izagirre Egaña biologoak izango dira ibilbidearen gidariak. Biak Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak, eta narrasti eta anfibioetan adituak.

Urtegi inguruko fauna ezagutzeke aukera izango dugu eta ekosistema horretan bizi diren animaliak bilatu ahal izango ditugu partaide guztiek, adin guztietarako prestatutako bisita izango baita. Narrasti eta anfibioak nola bilatzen diren erakutsiko digute, zer behar dugun horretarako, aurkitu nahi dugunaren arabera nola eta

non bilatu... Topatutako izaki horiei buruzko azalpenak emango dituzte bi adi-tuek, eta parte-hartzaileen galderak eta zalantzak ere erantzungo dituzte.

Dena den, ez da beti zorterik handiena izaten horrelako bilaketetan, eta badaezpada, paperezko euskarrietan ere eramango dituzte urtegiaren bueltako ekosisteman biltzen diren narrasti eta anfibioen irudiak. Landa koaderno bana oparituko zaio partaide bakoitzari eta bertan izango ditu koloreztatzekeo animalien marrazkiak.

Leurtzako urtegi informazio gunean elkartuko gara maiatzaren 18an 10:30ean, eta 14:00ak aldera bukatuko dugu bisita gidatua. Eta han gaudela aprobetxatuz, bertako mahaietan mokadutxo bat eginez emango diogu amaiera irteerari. Jatekoa bakoitzak etxetik eramateko gonbitea zabalitzen dugu, eta edaria ARGIAren kontu.

GARRANTZITSUA: KOPURU MUGATUA

Txikitik eragiten lema maiz erabiltzen du ARGIAk, eta oraingo irteeran kopuru oso mugatua izango da, ingurumenean ahalik gutxien eragiteko, eta behatuko ditugun anfibio eta narrastiekiko errespetua bermatzeko. Gehienez 35 laguneko taldea izango da, beraz, eman izena lehenbailehen argiak100urte@argia.eus helbidera idatzita. ●



ARGIA

1919 · 2019

AGENDA

ARGIAK 100 URTE: ZERUKOTIK LURREKORA

📍 **Donostia** San Telmo Museoa 🕒 **19:00**

Maiatzak **21** asteartea

Koldo Izagirre

Mendearen umek munduari desafio hitzaldia.

Maiatzak **22** asteazkena

Antton Olariaga eta Joseba Larratxe

100 urte, ehunka irudi hitzaldi ilustratua.

Maiatzak **24** ostirala

**Joxemari Ostolaza "Xalbardin",
Malores Etxeberria eta Josu Landa**

Enpeinatzea ez bada libre errezitala.

Maiatzak **28** asteartea

Elixabete Garmendia

Euskarazko kazetaritzaren intrahistoria bat hitzaldia.

AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS



ARTIUM MUSEORAKO SARRERAK

Gasteizko museorako sarrerak.

MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:

Maiatzak 2, osteguna, 10:00etan.



NOLA DA "MUSUTRUK"?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu *Argia Jendea*-rentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira.

Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.

Denon esku dago *Argia Komunitatea* elikatzea, bakoitzak ahal duena besteen esku musutruk jarrita.

“Ditugun konbikzioak zalantzan jartzeko balio dezakete nobelek, ez tesiak egiteko”

BEÑAT SARASOLA, IDAZLEA

1990eko hamarkadan kale-borrokatik gertu ibili ondoren, giroz eta bizimoduz aldatu du *Deklaratzekorik* ez nobelako protagonistak eta Madrilgo Reina Sofía museoaren atarian aurkitzen dugu istorioaren hasieran. Beñat Sarasolaren lehen eleberriak euskal gatazka du eszenatoki, harreman pertsonalak ardatz, eta estilo bereziz kontatuta dago. Martxoaren 29an Donostiako Egia auzoan dagoen Azpi kultur elkartean egin diogu elkarrizketa hau, liburuaren jendaurreko aurkezpen estraofizialean.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

 JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Aurretik argitaratu dituzun lanen arrastoak bila ibili naiz zure lehenbiziko nobela honetan: *Kaxa huts bat-en freskotasuna, Alea-ren apustu formala, prentsan idatzi dituzun artikuluen izaera polemikoa... Denetatik zerbait badagoela uste dut Deklaratzekorik ez-en, ez dakit ados zauden.*

Freskotasunarena entzuteak pozten nau, ze horrek esan nahi du hain zaharra ez naizela. Formarena niretzat inportantea da, kontatzen dena baino askoz interesgarriagoa iruditzen zaidalako kontraera; eta alde horretatik ahalegin bat egon da, nahiz eta istorio bat ere badagoen eta suspentse-ukituak ere badituen momenturen batean. Gustatuko litzaidake harago joatea ere, alde formaletik oraindik gehiago egitea. Nik uste zer edo zer antzematen dela, badagoela ahalegin bat, baina lehenengo nobela denez gauza batzuetan kontserbadoreago jokatzeko duzu agian. Gainera iruditzen zait inportantea dela kontamoldea egokitzea kontatzen duzun

horretara, pertsonaia bat bere etxeko sofán dagoenean edo ertzainen karga baten ondoren korrika ari denean, ezin duzu kontamolde bera erabili, egoera oso differentea delako. Egin dut ahalegina alde horretatik. Alegia, ez da formaren esperimentazio hutsa hala tokatzen delako, kontatzen ari zarenarekin lotuta baizik.

Polemikarena ez zait hainbeste gustatzen [barre egin du]. Igual kontrakoa irudi dezake, baina nik ez du halakorik bilatzen.

Liburuaren aurkezpenean azpimarratu zenuen hau fikziozko lana dela. “Fikzioaren irakurketa gero eta problematikoagoa den fase historiko batean gaude”, esan zenuen. Zer esan nahi duzu horrekin?

Aspalditik esaten da fikzioa krisian dagoela, hori esatea ez da izugarritzko nobedadea. Iruditzen zait fikzioa irakurtzeko modu bat dela, ez hainbeste testuek duten ezaugarri zehatz bat, baizik eta

guk testu bat nola irakurtzen dugun. Eta irakurtzeko modu fikzional horrek azken hamarkadetan zailtasun handiak bizi ditu. Aztertu beharko litzateke zergatik, eta segur aski faktore asko egon daitezke; agian izan daiteke berehalakotasunagatik, testuak azkar ulertu behar ditugulako eta joera dugulako berehalako irakurketa batzuk egiteko. Gero, euskal literaturan bertan, saiakerak sekulako goraldia izan du; eta saiakera baten aurrean irakurleak duen jarrera eta fikzioaren aurrean duena oso desberdina da. Saiakeragile batek esaten duenean “halako iruditzen zait” gauza bat da; eta nobela bateko pertsonaia batek edo narratzaileak esaten duenean, beste bat. Beste mundu batez ari gara. Eta inpresioa daukat azken boladan halako irakurketa moral edo politiko erraz samarrak egiten direla fikzioaren inguruan. Noski, fikzioek eragin politikoak dituzte eta inplikazio moralak, baina uste dut badagoela joera irakurketa batzuk sinplifikatzeko. Horren aurrean



azpimarratzen dut hau fikzioa dela, nahiz eta gero, segur aski, nobela irakurtzen duenari gauza batzuk gertukoak egingo zaizkion: Donostian girotuta dago; pertsonaiak ez du nire adina, bi edo hiru urte zaharragoa da, baina bueno, gauza batzuk identifikagarriak dira; eta hala ere, ez du esan nahi fikzioa ez denik.



“Inpresioa daukat azken boladan halako irakurketa moral edo politiko erraz samarrak egiten direla fikzioaren inguruan”

Azken urteetan protagonismoa hartu duen fenomeno batek izan dezake zerikusirik? Autofikzioa bezalako generoek duela urte batzuk ez bezalako pisua dute orain.

Egia da oso modan jarri direla fikzio-tik aldentzera edo errealtate moduko batera hurbiltzen diren idazleak. Eta aitortzen dut autofikzioa egin duten idazle asko maite ditudala, W.G. Sebald edo Enrique Vila-Matas adibidez garai batean asko irakurri nituen. Baina azken urteetan modako etiketa bihurtu da eta badago halako joera bat, nire ustez, errazkeriaz edozeri nobela deitzeko. Pentsatzea hogeita gutxiarekin edo hogeita hamar urterekin bizi izan duzuna berez interesgarria dela norbaiti kontatzeko, inolako artifiziorik gabe. Eta hori da zure buruari estima handiegia edukitzea. Batzuetan irakurtzen ditut nobelak lanketa handirik gabe kontatuak; eta niretzat nobela eraikuntza bat da, eskatzen dizu beste zerbaite, ez da urtetan idatzitako egunerokoa publikatzea bezain erraza.

Lekuak eta egoerak identifikagarriak izan daitezkeela zenioen lehen. Eider Rodriguezek esandako zerbaitekin akordatu naiz: “Iruditzen zait egon dela euskal literaturan ihes egiteko joera bat: gureak bezalako izen-abizenak dituzten pertsonengandik, gu bezalako jendea bizi den herrietatik”. Ados zaude? Ze urtetakoa da Eiderren esaldi hori?

Duela pare bat urtekoa, *Bihotz handiegia* aurkeztu eta gutxira Lander Arretxeak ARGIAN egin zion elkarriketan esan zuen.

Inpresioa daukat, batzuek esaten dutenaren kontra, euskal literaturan gatazkaz edo errealtate politikoaz betidanik idatzi izan dela –1975etik gutxienez–. Egia da, hala ere, egon zela garai bat 1990eko hamarkadan eta 2000koaren hasieran beste mota bateko joerak nagusitu zirena, baina azken boladan egon dira liburu dezentegure inguruan kokatuta, gertukoak edo izan daitezkeenak. Nire kasuan ere ahalegin hori badago. Adibidez, izenak aipatu dituzenez, protagonistak baditu hiru lagun, koadrila moduko bat. Hiru lagun horien izenak hautatzerakoan nire generazioan oso ohikoak direnak aukeratu nituen, Asier, Oier eta Unai. Eta gertatzen zitzaidan nahastu egiten nituela etengabe, zeren niretzat hirurak igualak ziren. Bati abizenez deitu diot azkenean, konturatzeko nintzelako errebisioetan nahastu egiten nintzela [barre egin du].

Protagonistak bi bikote ditu. Haien izenekin ere berdin jokatu duzu?

Lucía da bat eta bestea Miren, eta nik uste izenarekin bakarrik ideia bat egin dezakezula haien jatorriaz. Gero, jakina, salbuespenak daude, baina idazleak horrekin jokatzen du, irakurlearen espektatibekin; eta horiek hausteko aprobeitxatu dezakezu gainera. Baina izenak aukeratzeari ez da kontu banala.

Dena den, hau ez da nobela errealista konbentzional bat ere. Narratzailearen ahotsak arreta deitzen du, posizio nahiko berezi batean dagoelako: protagonistaren alboan nolabait, baina batzuetan haren barne-kontzientzia ere bihurtzen da. Ahots hori sortzea buruhauste handia izan da?

Niretzat hori izan da inportanteena. Istoria bera baino, ahots hori zen garrantzitsuena eta hori, gutxi gorabehera, bannuen buruan; istorioa ere bai, bi planotan –1990eko hamarkada batetik eta 2009. urtea bestetik–, eta hasi nintzenean pisu handiagoa zuen 90eko hamarkadak, baina hortik saiatu nintzenean ez nuen asmatzen eta azkenean aldatu egin nuen istorioa eta eraman nuen gehiago 2009. urtera. Baina hori ez zen hain inportantea, ahotsa baizik. Azkenean narratzaile bat erabili dut hirugarren pertsona kontatzen duena, baina protagonistaren ahotsarekin nahasten dena; eta jolas hori dago nobelan zehar, nolabait nahastea

narratzailearen kanpoko ahotsa eta pertsonaia nagusiarena. Horregatik, batzuetan, ambigua suerta daiteke: “Zein ari da hau esaten?”. Hori bilatzen dut, irakurleak pertsonaiaarekin duen hurbiltasuna edo hartzen duen distantzia zalantzan jartzea etengabe. Zeren pertsonaia ere, ez nuen nahi atsegina izan zedin; baina ezta gorrotagarria ere. Ambiguotasun hori narratzailearen bidez lor nezakeela uste nuen.

Euskal gatazkak zeharkatzen du liburua, baina ez nuke esango “euskal gatazkari buruzko” nobela denik.

Prentsaren aurrean egindako aurkezpenan aipatu nuen Espainiako idazle bat, Isaac Rosa. Badu liburu bat, *Otra maldita novela sobre la Guerra Civil* (Beste nobela madarikatu bat Gerra Zibilari buruz) eta pentsatu nuen nireaz baten batek esango zuela: “Beste nobela madarikatu bat euskal gatazkari buruz”. Gainera, gaztelaniazko bat famatua egin da eta badirudi hemen besterik ez dela idazten gai horretaz. *Deklaratzekorik ez-en* gatazka hor dago, nobelaren eszenatokia da, 90eko hamarkadan kokatuta dagoenez ingurune sozial batean hori tokatu zitzaigulako askori; eta horren aurrean pertsonaiek hartzen dituzte posizio ezberdinak. Eszenatoki latz horrek aukerak eman dizkit pertsonaien arteko gatazkak islatzeko. Baina gehiago interesatzen zaizkit pertsonaien arteko kontu horiek, protagonistak dituen dilema moralak, zalantzak, dituen segurtasunak, bere buruari kontatzen dizkion ipuinak... Horiek agerrarazteko material interesgarria da hemen bizi izan dugun historia, kontraesan, zalantza eta absurdo asko sortzen baitira. Baina hemen ez dago tesi bat gatazkaren inguruan, zorionez, esango nuke.

Zeharka Fernando Arambururen *Patria* aipatu duzunez, ni behintzat nahiko harrituta nago zenbait irakurlek nola bilatu duten hemen gertatu zenari buruzko egia fikziosko lan horretan. Garbi dago ez dela hori irakurleari proposatzen diozuna.

Ez, ez. Ez daukat inolako bokaziorik euskal gatazka konpontzeko, konpondu badaiteke, ezta horri buruzko tesi bat egiteko ere [barre egin du]. Gainera uste dut nobela batek ezin duela hori egin. Agian saiakera batek... Saiakeretan asko sinesten dutenek pentsatuko dute baietz. Baina nik uste dut nobelek gehiago balio dezaketela guk ditugun konbikzio asko zalantzan jartzeko; edo uste asko beste begirada batekin begiratzeko; edo ditu-



gun kontakizunei ñabardurak egiteko... Eta hori bera ez da gutxi. Baina nobela bati ezin zaio beste zera hori eskatu. Adibidez, kontakizun batzuetan ikusten da, herri honetan biolentzia asko bizi izan ditugunez, konpentsazioak egiteko joera: alde bateko biolentzia jarri eta konpentsatzeko bestekoa ere sartzea. Baina nobela batean askoz egia literario potenteagoa lor dezakezu bakarrik biolentzia bat erakutsiz edo bakarrik bestea. Bi biolentziak lantzeak ez zaitu egiara gerturatzen. Literaturak beste bide batzuk egiten ditu eta ni ere horretan saiatu naiz, ez ezer esplikatzen. Pertsonaien jokamoldeak daude, beraien kontraesan guztiekin; eta irakurleak ikusiko du zer balorazio egiten duen.

Gatazkaren plano intimoa agertzen da, diskurtso handiak baino gehiago. Tira, pertsonaiak nahiko diskurtso botatzen du momentu batzuetan ere. Baina bai, saiatu naiz pertsonaia nagusiak hori egiten duenean ere horren arrakala batzuk iradokitzen. Gehiago da gatazka horrek nola inpaktatzen duen pertsonaia, bai iraganean, bai orainean; eta iraganeko

gauza batzuk jakin ahala oraineko kontakizuna ere aldatzen joaten da.

Lagun batek beti aipatzen du gure hautu politikoak ze punturaino dauden eraginda politikoak ez diren kontuenatik eta uste dut nobela honetan hori ere nabaritzen dela: ze punturaino pertsonaiek jokutzen duten, ez konbikzio edo arrazoiketa politikoen ondorioz, baizik eta gertutasun, afektu edo desafektuengatik, momentu batean leku batean kokatze horren ondorioz. Eta posizio horiek momentu batzuetan zailtzen jartzen dira edo hankaz gora doaz. Horretaz guztiaz hitz egin nahi nuen, nola egoera gatazkatsu batean pertsonaiak hor dabilen, deriban, ahal dutena egiten.

Gai nahiko sakonak aipatzen ari gara, baina nobela dibertigarria ere bada zenbait unetan, irribarre gaizto batekin irakurtzekoa. Kontrapuntua bilatzeko egin duzu?

Ez, hori berez ateratzen zait, neurtu egin behar izan dut, ez nuelako satira bat egin nahi. Kasu honetan ondo etortzen zait gertatzen dena gatazkatsua eta

“Ez badugu arriskurik hartzen idazten dugunean, hobe dugu etxean geratzea”

tragikoa izatea, kontrapuntu hori bilatzeko. Baina nire burua frenatu behar dut, zeren bestela narratzaileak esan beharko ez lituzkeen gauzak esaten ditu oharkabea; eta gainera kontu zaila da umorearena, zeren gauza bati nondik begiratzen zaion, umorezkoa izan daiteke edo groteskoa. Eta garaiarekin ere aldatu egiten da: aurreko batean Bernardo Atxagaren *Obabakoak*-eko testu batekin ari ginen klasean eta bada-go parte bat nahiko umore beltzekoa. Batzuek esaten zuten gaur egun hori ez zela argitaratuko, agertzen delako emakumeen aurkako biolentzia, umore beltzetik. Eta pentsa, *Obabakoak* da, denok irakurri dugu. Umoreak baditu bere arriskuak. Baina ez badugu arriskurik hartzen idazten dugunean edo sortzen dugunean, hobe dugu etxean geratzea. ●



Bidez bide, oraindik ere

XX. mendean, aitzineko gizaldietan bezala, kantak sortzen jarraitu du euskaldunak. Hegoaldean eta Iparraldean. Abesti asmatzaile oparoenetatik bat Eñaut Etxamendi ezterenzubitarra dugu, dudarik gabe. Ehun puska ahantz ezin moldatu zituen, hitzak eta musikak eginez, Ellande Larralderekin batera eskaintzeko Euskal Herriko plaza guztietan. Zoratu gaituzte, askotan, *a capella*.

 ITXARO BORDA

 AINARA AZPIAZU ADURIZ "AXPI"

Egiazki *bidez bide* ibili ziren Etxamendi eta Larralde kantariak, bikotean, mikro soil batez hornitua zelarik taula gain biluzia. Ahotsak doinuari egokitzekeo tresna ahora ematen zuen Larralde eta handik gutxira kantatzeari ekiten zioten, bi bozetan, ikus-entzulegoa mutu eta ttattit zegoela behean, soinuak isurtzen zituen hitzak edaten bezala. Harrigarria zen, une hartan halako batasun komunikatibo bat hazten zelako, komunio kultural baten antzekoa.

Leku batetik bestera ernatu bitartean, bikoteak autoan ikasten zituen Etxamendik pentsatu ahaireak. Euskal Herriaren mutur batetik bestera zihoazen, nahiz eta hasieran Nafarroa Behereko herriak zeuzkaten helburu. Bertakoak izanez, biak denbora batez kanpoan egonik –ikasketak eta lehen ingeniari esperientziak burutuz–, lekuan lekuko egoera –latza– jende arruntekin partekatzekeo xedearekin itzuliak ziren. Azken uneetaraino Jean Errekart lizeoan irakasle zebiltzan eta Amikuze eskualdeko gazte belaunaldien muinak formateatu

zituzten, abereen elikadura eta mundu mailako ekonomia alorrean bederen!

Eñaut Etxamendi (1935, Ezterenzubi) Tolosan nekezaritzan eta politikagintzan estudiante eta Dakarren garapen lokalaren sailean lanean ibili zen, 1963an Garazira bueltatu arte, 28 urte zituela. Garai haietan, konposatu zuen *Bidez Bide* hau, Donapaleuko Artesenian neska-eskolako talde bati lau oreneko kurtsoa emanik, zoko batean zegoen piano batean, aitortzen duenez, publikoki emateko asmorik ere ez zuela:

*Bidez bide nabilena
Kantu bat dut laguna
Guziek uste nautena
Joan arin-arina...*

Ezterenzubiko Mendiburua baserriko zazpi haurretatik txikiena zen Eñaut Etxamendi. Haurtzaroan ama hiltzen eta beranduago, bere sei haurrideak Ipar Ameriketara hegaldatzen ikusi zituen. Exodo erruralaren eta laborantzaren industrializatze mugimenduaren ondo-

rioz, herria husten zekusan eta 1965etik hara, doluminez beteriko melodiekin, sobera mingarri izan gabe, min kolektiboak aitortzen zituen bereak bailiran. Eta hala ziren. Enbata batasuneko barnealdeko intelektual taldekoa zen, Jean Louis Davant eta Manex Goihenetxerekin. Kostaldeko militante “burgeseak” ez zituzten aparantziarik ere ulertzen. Konstatzen duenez antsiaren eta neurosiaren atzamarretatik ihes egiteko hasi zen abestiak orrazten 1963an:

*Eskual zerupen auhena
Bihotzeko samina
Nahasiz elgarrengana
Kantuz deramat mina!*

Etxamendik euskal tradizioko kanta enblematikoak amarekin ikasi zituen haur hotza zela. Hitzak, kaier batean eskuz kopiatu eta edonon, ahoak eman ahala eskaintzen zituzkeen, behika, ardi-ka, astoka igortzen zutenean, Dartamalda aldera adibidez. Gustua eta eredua hartu zuen bost urtetan, luzaz hanketa-

tik eri egon zelarik, sukaldean, auzoak kantari hautematean.

Ellande Larralde (1939-2012) eza-gutu artean, aurreneko saioetan, Maddi Etxepare edo Peio Etxegoienekin agertzen zen. 1967tik hara, izurarra izango zuen kide eta horrekin grabatuko zituen hainbat disko, bai eta Elkarrek 1998an plazaratu *Antologia* izeneko obra bikoitza. Bertan aurkitzen den *Bidez bide*-ren bertsioan, Karlos Jimenezek ditu ahotsak pianoz laguntzen. Erran behar da, euskaldungoarekiko eta euskal militantziako gertakarietako hurbiltasunak Etxamendiren poeta eta zirikari jenioa piztu zuela, 1971n *Joseba Elosegiri* eta 1974an Carrero Blancoren kontra atentatutik lekora *Yup la la* ospetsuekin famatu egin zelako mugaren bi aldeetan.

Gaur egun Ipar Euskal Herri barnealde bisitatzen duenak ez du duela mende erdikoa irudikatzen ahalko: etxeak ilunak eta pobreak ziren, ura putzutik eta argia ezkozko zaiolatik hartzen zen eta bideak belarrez zein harriz estaliak zeuden, kabalen eta haziendentzat baikizik ez on! Haur anitzek, enarek larrazketan bezala, familietako habiak uzten zituzten lehenik Ameriketara, gero Paris edo Bordelera ikasketa eta lanerako. Laborantzian plantatzeko xedea zutenak eta aitek hala egitera izendatuak baikizik ez ziren gelditzen baserrietan... Eñaut Etxamendik giro hori du zehazki kontatzen bere Ezterenzubiko euskara erreallitateari moldatuz:

*Auhen-mina dereitala
Jender diotetela
Nik eginez xaramela
Ez jakinez bestela:
Eskual herrien ahula,
Jende onen isila,
Nahiz argitarazila
Ari pertsutan hola!*

Kantariak –eta poetak!–, bere burua suntsitzen eta lehertzen doan jendarte horren lekukotasuna baino ez dezakeela eman aitortzen du koplaren onetan. Laborantza-langileak joan ziren aurreneko uhinetan, etxetiarren ondorengoak gero, eta azkenik, etxe jabeen umeak. Eskualdeak bizidunez hustu bezain laster, ordea, Oragarren sorturiko Jean Errekart politikariaren zuzendaritza pean, 1965eko itxura hitsa, Amikuzen bederen, aldatuko zen eta Eñaut Etxamendik garapen horretan parte hartuko zuen, ekonomia irakasle bilakatuz eta 1974tik hara bere negutegiak eraikiz Bithiriñan.



Idazleak aipatzen dituen “jende onak” –Donapaleu edo Garaziko burgesak– ez ziren baitezpada, Europatik kudeatu eta diruztatu nekazal politika industrial horren alde.

Jendetza urritzearekin batera, euskara ere galbidean jarri zen. Adinekoek ezinbestean, eta mende hasierako abertzale-euskaltzale batzuekin harremanetan izan ziren hirietako aristokrata notableek estimatzen zuten handizki klase apaletako izakien ezpainetan hain itsusi zitzaizen hizkuntza hori.

*Zendako kantuz nabila
Eskuaraz bazterretan
Nehork ez aditzekotan
Nago maiz gogoetan.
Eskualde arrotzuetan
Baserri hustuetan
Ez dut behatzailerikan
Txoriez besterikan...*

Bakartasun sozial berri baten froga ekartzen digu hemen poetak. Txoriak geratzen zaizkio entzule eta ikusle soil. Alde erraldoia dago, adibidez, laborantza munduan errotzen diren Elizanbururen *Ikusten duzu goizean* erromantiko oparoaren eta *Bidez bide* honen artean, ehun urte eskaseko epean. Autoa etxeetan sartu aitzineko urteetan, jendeak elkarrekin solasean zihoazen mezara, merkatura, herrietako edozein juntatze aitzakien karietara. 28 udaberritan, eskarmentuz eta ametsez beterik, Dagarretik itzultzen denean, poetak desertu humano batekin topo egiten du eta arrakala horretatik kanta hau isurtzen zaio. Solasak ahituak dira, irriak itzaliak, eskualdea arras arrotzen ari da.

Dolamenezko ahaire bat asmatzen du Etxamendik, gustukoak dituen Zube-

roako basahaireen ereduari hurbilduz. Samurtasun argiz apaintzen du bistakoa den tragedia, ezтики baina gauzak garbiki erranez. Herriaren doloreaz jabetzean bere dolore propioaz oroitzen da; ama, erran dugu gorago, haurra zela galdu zuen, eta naski ama bati egin dakioken kantarik hunkigarriena oparitu zion *Ttiki-Ttaka* azpildu zuenean.


*Garaziko kantaria
Hoake hilerrira
Hire ama dagonera
Nigarren ixurtzera,
Nigarren ixurtzera eta
Barkamendu eskera
Etxia eta eskuara
Baitoazi lurrera!*

Malkoak igotzen nabaritzen ditugu abesti honen azken zatia, *a capella* eta zuzenean aditzen genuenean. Euskal nortasuna zurkaizten zituen bi elementuak peko errekan ziren, etxea eta euskara alabaina, jendea biluz eta hezur abandonatuz. Erran behar da, belaunaldi horrentzat, latzeria horren onartze epikoak halako sustrai mitiko bat osatu zuela, gure egunetara iraun duen ezkerreko abertzaleen borrokaren mitologia bermatzeko.

Eñaut Etxamendi jadanik idazle gisa ezagutua da. Nobelak, ipuinak eta poesiak izkiriatu ditu eta Maiatz argitaletxeak, bere lanak sei tomotan plazaratu zituen. Politika eta ikerketa alorrean ere azaldu zen, garaian garaiako.

Bidez bide kanta buruan daramagu oraindik ere, duela 40 urte irekiriko laborantzaren industrialitze oldearen ondorengotik, bizidunez are hutsagoa bihurtu den gure eskualdeotako landa eremuak zeharkatzen ditugunean. ●

Errebotearen itzal estu eta luzea



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Amasa-Villabona (Gipuzkoa) 1870eko hamarkada. Herriko plaza 45-50 metro inguru luze zen orduan eta, beraz, ez zen nahikoa errebotean aritzeko. Herritarrek plaza handitzeko eskatu zuten. Gerra Karlistetan erretako bi etxe bota eta, hala, 70 metro inguruko plaza eraberritu zuten. Berez, arrazoi nagusia zen azoka egunetan ez zegoela lekurik nahi beste ganadu sartzeko. Baina bide batez, errebotean, luzeko pilota jokoan, jarduteko aukera emango zuen handik aurrera gunee berriak. Ia mende eta erdi geroago, Errebote plaza eraberritzeko lanak oraintxe amaitu dituzte.

Errebotea pilota jokorik zaharrenetakoa da, frontisa erabiltzen duten aldaerak baino zaharragoa da bere jatorria. Baina gainerako modalitateak askoz ere zabalduagoak daude egun. Joko-eremu hain luzea behar izateak eragin du hori, besteak beste; Ipar Euskal Herrian errebote plaza gehixeago daude, baina Hegoaldean oso gutxi dira. Eta, gainera, jokoa arauak ez dira bat-batean ulertzekoak eta, hortaz, denbora behar da errebotea barnerratzeko eta gozatzeko.

Eta, hala ere, Villabonako plazak eutsi egin dio kirol jardun horri. Plazaren luzerak ez ezik, Teodoro Hernandorenak (1898-1994) ere izan zuen zerikusia horretan. Odontologo, politikari eta kultur-gile zizurkildarrak arlo askotan egin zuen



VILLABONA ETA HAZPARNEREN ARTEKO ERREBOTE PARTIDA 1948AN, ORAINTE BERRITU DUTEN ERREBOTE PLAZAN.

lan. Dantza eta mendizale taldeak sortu zituen, nekazari sindikatu bat ere bai, euskarazko kazetaritza bultzatu zuen, Euskal Herriko I. Bertsolari Txapelketako antolatzaileetako bat izan zen... -Xabier Lasak 2008an argitaratutako biografia mardulean jasotzen dira Hernandorenak egindako guztiak-. Baina jardunik kutunetakoa izan zuen beti errebotea, bere ustez euskaltasunerako bidea baitzen.

1932an errebote-jokoaren lehen araudia idatzi eta argitaratu zuen, euskara erraz eta didaktikoan. Besteak beste, errebotean kintzeka eta jokoka kontatzeko dela jaso zuen (15,30, 40 eta jokoa)

luzeko pilota joko gehienetan bezala, ale-gia, tenisean bezala. Edo alderantziz esan beharko genuke tenisean errebotean bezala kontatzen dituztela puntuak, tenisa sortu baino lehen ere Euskal Herrian kintzeka kontatzen baitzen.

Teoriaz gain, praktikan ere sustatu zuen Hernandorenak errebotea. 1930ean Villabonako eta Hazparneko pilotarien arteko errebote partida antolatu zuen plaza horretan. Orduz geroztik, urtero, herriko festetan antolatzen da neurketa eta datorren San Inazio egunean 90. aldiz jokatuko dute bi herrien arteko norgehiagoka errebote plaza berrituan. ●

Gurutzatuak ez ziren hain europarrak

Gurutzadetan europar kristau zintzoak musulman fedegabe gaiztoen aurka aritu zirela esan izan da luzaro. Baina, zintzoen eta gaiztoen kontua eztabaidagarria izateaz gain, DNAk baieztatu berri du "gurutzatuak" ez zirela uste bezain europarrak.

American Journal of Human Genetics aldizkariako artikulu batek eman du Wellcome Sanger Institutuko Chris Ty-

ler-Smith buru izan duen ikerketaren emaitzen berri: XIII. mendeko gudu batean Sidonetik gertu -egungo Libanon-guduan hildako bederatzi gurutzaturen DNA aztertu eta ondorioztatu dute horietatik hiru soilik zirela europarrak -zehazki, italiar, frantziar eta euskal jatorrikoak-; lau Ekialde Hurbilekoak ziren, eta beste biek arbaso genetiko mistoak zituzten. ●




CLAUDE DOUMET-SERHAL



LIBURUA

Irakurri eta antzezteko lana



NORK AGINTZEN DU?
ALAITZ OLAIZOLA
 ILUSTRAZIOAK: MANUEL ORTEGA
 EREIN, 2019

XABIER ETXANIZ ERLE

U rte batzuetako etenaldiaren ondoren berriro dugu antzerki lan bat esku artean. Alde horretatik, horrexegatik bakarrik ere, pozgarria da Erein etxearen *Antzoki Txikia* bilduma barruan argitaratu den Alaitz Olaizola-ren lan berri hau. Olaizola ezaguna da arlo honetan, bilduma honetan bertan baditu eta, hainbat lan argitaratuak. Eta alde horretatik irakurtzeko eta antzezteko diren liburu hauen nondik norakoak ondo baino hobeto ezagutzen ditu.

Hasieran, Manuel Ortégaren laguntza paregabearekin ilustrazio arloan, sinopsia eta protagonistak aurkezten zaizkigu (eskola bateko bost neska-mutiko-beno, mutiko bat eta lau neska-, eta hiru estralurtar -geroago gure artean gizaki nortasuna eta itxura hartuko dutenak-). Ondoren agertokia nolakoa izan


behar den eta antzezpenerako beharko diren elementu batzuk -plastiko bat eta tabletak, esaterako- azaltzen dira antzezanaren narrazioari, kontakizunari edo gidoiari, hobe esanda, ekin aurretik.

Egileak berak, sinopsian, adierazten digu labor-labor zein den liburuaren istorioa: "Mikelek eskola jazarpena pairatzen du. Isilean eta ezkutuan darama bere sufrimendua. Baina hemendik oso urruti, urrutiko planeta batean, izan dute gertaeraren berri, eta ez dute ezer egin gabe geratzeko asmorik".

Ikus daitekeen bezala Mikelek, obra honetako mutil bakarrik, jazarpena pairatzen du eskolan, eta bertan dauden artean Amaia bakarrik aterako da mutilaren alde. Egoera hori, baina, ez da guztiz argia eta sinplea, erasotzaileen artean liderra dagoen moduan badira be-

ren egitekoarekin guztiz lasai eta ados ez daudenak ere. Alde horretatik liburuak balio du eskola jazarpenari buruz hitz egiteko, azaleratzeko, irtenbidea emateko gure ikastegietako gaitz horri.

Ez da esan beharrik liburua di-da batean irakur daitekeela, antzezteko egini-ko obra izanik guztiz bizia da, elkarriketaz osatua, kontakizun labor batzuk dituela eta bederatzi agerraldi laborretan antolatua. Aipatzekoa da, baita ere, agerraldi batetik bestera agertokia aldatzeko oso modu sinplea eta azkarrarekin proposatzen duela egileak, eta alde horretatik ziur gaude obra hau irakurtzean gozatu ahal izan dugun bezala disfrutatuko dutela beste askok antzeztzen eta ikusten Esne Beltza taldearen *Nork agintzen du!*, kantarekin amaitzen den emanaldia. ●



KONTZERTUA

Frenesi hutsa



ZUZENDARIA ETA KOREOGRAFOA: MARCO BATTI. **MUSIKA:** RICCARDO JOSUA MORETTI.
DANTZARIAK: ELEONORA SATTA, KOH YOSHITAKE, GIUSEPPE GIACALONE, FILIPPO DEL SAL.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

I kuskizun zirraragarria disfrutatu genuen Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Ez zen espero genuena, askoz gehiago eta askoz hobe baizik.

Dantza espektakulu batera gerturatzaren garenean bi aukera ditugu buruan: dantza guztiz klasikoa, Petipa edo Fokine koreografoen lanen tankerakoa, edo dantza garaikidea, Maurice Béjart edo Blanca Li dantzariak ordezkatzen dutena. Kasu honetan, ez bata, ez bestea. Dantza fresko eta ulergarria izan genuen taula-gainean. Marco Batti koreografoaren kezka ez da izan bakarrik mugimenduen perfektzioa, zerbait gehiagoren bila ibilda: narrazio on eta logikoa eraikitzea, alde batetik, eta bestetik, ikusleek istorio horren aurrean larritasun bizia sentitzea. Eta hori guztia lortu egin du.

Balletto di Sienna-k egindako *Notre Dame de Paris*, Victor Hugoren eleberriz ezagunean inspiratua, ballet garaikidea da, noski, baina *mise en scène* naturalari esker, muntaia kontzeptualetatik urrundu egiten da, zerbait eskuragarria eskainiz. Pertsonaien nahiak eta izaerak modu argiz agertzen dira, akzioak badu film mutuetako adierazkortasun naïf hori eta balleteko numeroak atsedetik gabe kateatzen dira estutasun-giroa lortuz.

Riccardo Joshua Moretti konpositorearen musika kementsu eta asaldatzailak garrantzi handia izan zuen efektu guzti honetan. Gaur egun, Parmako kontserbatorioko irakaslea den Moretti maisuak filmetako soinu-banda ugari konposatu ditu eta oso nabaria izan zen espektakulu honetan musikaren kutsu zinematografikoa.

NOTRE-DAME DE PARIS
BALLETTO DI SIENA
 VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA
 APIRILAREN 13A

Bestalde, aparteko bakarlariak izan genituen. Koh Yoshitakek Quasimodo hunkigarria egin zuen. Koreografia zaila zuen Yoshitakek baina indar eta aldi berean fintasunez bete zuen bere papera. Eleonora Satta bikain aritu zen Esmeraldaren rolean. Adierazkortasunez eta doitasunez interpretatu zuen protagonistaren papera. Baina agian dantzari eta interprete onena Giuseppe Giacalone izan zen, Frolo artxidiakono boteretsu eta manipulatzailaren rolean. Dantzari fin eta perfektua izateaz gain, kutsu perbertso interesgarri bat eman zion pertsonaiari.

Horri guztiari gehitu behar dizkiogu argi-diseinu egoki bat eta eszenografia soil baina efektuduna. Ederra, bene-benetan. ●



Apalentsako apalak

 **DABI PIEDRA**
 **DAVID HERRANZ**

Euskal kulturaren alderdirik abangoardistena, sormen berritzaileena bildu eta erakustea da Loraldia Festibalak bere buruari jarri dion xedea, baina urtero hartzen du iraganera begiratzeko tarte. Aitzindariak ezarritako zimendurik gabe, nekez izango genukeelako gaur euskal kultura berritzeko oinarriak.

Oraingo hau baino garai ilunagoetan euskal kulturaren itsasargi izandako Verdes liburu-denda gogoan hartu zuten Arriaga Antzokian, 1973tik 2005era arduradun izan zituen Javi Escudero eta Asun Zuloaga omentzeko ekitaldian. Haien lan isilari esker, kulturak, jakintzak eta euskarak arnasbidea topatu zuten Bilboko Posta kaleko denda estu hartan. XX. mende hasieran inprimategi eta liburu-denda izandakoa gainbeheran zela hartu, eta erreferente bihurtu zuten.

Idazle, musikari eta pentsalarien

aterpe izan zen Verdes. Esate baterako, Bernardo Atxaga gaztearentzat, Bilbora heldu berria zela. “Apalentsako apalak” topatu zituen han, inspiraziorako iturri agorrezina. Diktaduraren azkenetan eta ondorengo urteetan, non aurkitu atzerriko idazleen harribitxiak, euskarazko nobedade guztiak (hainbeste ere ez ziren garai hartan), testu klasiko ahaztuak?

Xabier Peñaren euskara ikasteko metodoa izan zen Natxo de Felipek Verdesen erositako lehenengo liburu, euskarazko autore zaharrak eta berriak ezagutzeko giltza. Miren Agur Meaberentzat ere, mundu berri baterako atea izan zen Verdes, “oroitzapenen mosaiko” baten bidez gogoratu zuenez. Joseba Sarrionandiak maiz bisitatu zituen apalategi haiek: Gutun bidez agertu zen Arriagan, Ane Pika za aurkezlearen ahotsean.

Liburuen usaina, ohiko erosleen arteko elkarriketen zurrumurrua, sumatu zi-

VERDES LIBURU-DENDA AKORDUAN

NOIZ: Martxoaren 24an, igandea

NON: Bilboko Arriaga Antzokian

tezkeen igande eguerdi hartan, Verdesen oroitzapena biziberritu zuen saioan. Musika ere ezin falta, Gorka Benitez, Ruper Ordorika eta Juan Carlos Perezen eskutik. Zenbat disko saldu ote zituzten Verdesen? Zenbat zaleren belarrietara heldu ziren lehenengoz haien doinu berriak?

Saioa amaitzeko, Bernardo Atxagak hartu zuen hitza berriro. Zerura igo zen une batez, eta han aurkitu zituen Ricardo Toja, Jorge Oteiza, Txema Larrea, Gabriel Aresti, Imanol Berriatua, Txoko Ederreko Andone, Andolin Eguskiza... lasai asko solasean. Baina haiek guztiak joanak dira, 2005ean Verdes joan zen bezala, mendea bete baino urtebete lehenago, garai berrien abiadurak irentsita, merkatuaren arau gupidagabeek menperatuta. Zorionez, Verdesen ametsari eutsi ziotenak gure artean daude, eta Arriagan batutako jendetzaren txaloak izan ziren haientsako omenaldirik beroena. ●



Bertso-zopa

Osatu Miren Amurizak 2017an Donostian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Uztailaren hemeretzia*. Gaia: Sara Majarenas zara. Baimena eman dizute alaba ospitalean bisitatzeko. Gelan sartu zarenean, lo zegoen, eskutik heldu diozu eta begiak zabaldu, eta hala galdetu dizu: non nago ama?

Ekarridazu eskua lzar
eta heltzeai ez _____
begira nola iritsi zaren
ospitaleko gelara
_____ hemen zure hartzatxoa
begira zure almohada
ez da etxea baina zainduta
zauzkagu ene _____
amets gaizto bat eduki duzu
baina _____ egin zara. (bis)

Saiatuko naiz lzar zuretzat
dena erraza izan _____
ta horrexegatik esplikatu
dizut dena arin-arin:
_____ duzu zure aitatzko
gogoan zer zizun egin
baina begira, ez zaite _____
ta _____ izan nadin:
zauriak zuri egin zizkizun
niri eman _____ zidan min. (bis)

Konturatuko zinen _____
ez zaudena honezkero
eta neu ere _____ eraman
egin behar naute gero.
Aiton-amonak _____ daude
eta eurek zu espero
eutsi indartsu beste pixka'ten
ai nire _____ balego
gaurtik aurrera eingo genuke
elkarrekin lo _____! (bis)



A	R	I	G	E	B	U	G	J	M	N	A	C	J	F
I	C	H	S	A	T	I	H	N	L	C	F	C	G	C
I	G	K	S	S	U	I	D	E	E	D	Z	L	M	V
S	U	P	A	I	C	E	Z	A	M	R	D	V	C	B
A	J	H	I	E	V	R	D	U	E	S	T	G	T	
B	A	S	A	Z	S	G	B	O	B	D	N	R	M	I
N	G	J	L	L	T	G	A	A	S	E	G	T	R	P
F	O	E	D	N	P	S	U	O	P	D	C	V	X	E
C	G	L	J	B	H	L	D	A	P	L	O	T	I	E
I	O	B	E	R	R	I	Z	A	O	T	N	R	H	G
C	A	P	S	S	B	E	H	N	F	Z	L	F	A	F
H	N	V	O	Z	D	T	I	O	T	A	N	E		
C	V	Z	I	I	N	X	J	V	J	D	H	N	G	G
T	L	O	A	Z	L	E	V	L	A	C	A	R	I	A
R	G	A	B	A	L	A	Z	J	E	Z	H	D	Z	Z
B	B	G	H	E	S	N	A	T	U	A	R	S	P	D

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

GAIZKA IROZ



gauzen multzo. **6.** Hareazko muinoak.
Zaletasun atzizkia. **7.** Landare mota, garoa.
8. Nahikoa. Elementu kimiko.

GOITIK BEHERA:

1. Atea, sarrera. **2.** Puskatu, tarratatu. **3.** Barre. Naizen honek. **4.** Seigarren musika nota. Donari, sari. **5.** Binako multzotan. **6.** Erretzeko tresnak. Euskal fonema. **7.** Atomo kargatu. Bihar ez, hurrengoan. **8.** Ditut, iraganean. **9.** Deiturak.

EZKER-ESKUIN:

1. Zurezko ontzi luze. Malda handiko aldapa. **2.** Muskerraren itxurako animalia. **3.** Kontsonante errepikatuta. Jarri. **4.** Argazkiko hiriburua. Izena (laburdura). **5.** Idi hitzak hitz-elkarketan hartzen duen forma. Postaz bidaltzeko biltzen diren

Sudokua

ERRAZA

1	3			2	8	6		
			3	9			5	
	9		1					
3	4		8					6
7		6				9		5
2					1		7	3
					5		1	
	2			4	3			
		4	2	1			9	7

ZAILA

		6	3					
1	4			8				2
		9					4	
	6	4		7	3	2		
	8						5	
		1	8	2		4	9	
	9					5		
2				3			7	9
					2	3		

EBAZPENAK

Ekarridazu eskua lzar/eta heltzeai ez laga/begira nola iritsi zaren/ospitaleko gelara/begira hemen zure hartzatxoa/begira zure almohada/ez da etxea baina zainduta/zauzkagu ene alaba/amets gaizto bat eduki duzu/baina esnatu egin zara. (bis)/Saiatuko naiz lzar zuretzat/dena erraza izan dadin/ta horrexegatik esplikatu/dizut dena arin-arin:/gogoan duzu zure aitatzko/gogoan zer zizun egin/baina begira, ez zaite nahastu/ta zintzoa izan nadin:/zauriak zuri egin zizkizun/niri eman nahi zidan min. (bis)/Konturatuko zinen ez zaudena honezkero/eta neu ere bertze eraman/egin behar naute gero./Aiton-amonak hementxe daude/eta eurek zu espero/eutsi indartsu beste pixka'ten/ai nire esku balego/gaurtik aurrera eingo genuke/elkarrekin lo gauero! (bis)

8	9	3	2	6	5	7	1	4
7	9	6	1	7	9	2	5	3
4	6	4	3	8	5	8	6	9
6	6	4	9	6	3	7	1	7
3	6	5	5	2	8	1	7	2
1	1	1	1	1	1	1	1	1
1	1	1	1	1	1	1	1	1
1	1	1	1	1	1	1	1	1
1	1	1	1	1	1	1	1	1
1	1	1	1	1	1	1	1	1

ZAILA

7	7	1	6	3	9	3	6	8
8	5	1	7	4	3	5	6	8
6	7	3	9	8	5	2	1	4
7	8	5	1	4	1	4	7	3
5	8	5	1	4	1	4	7	3
2	7	1	1	6	9	4	3	8
3	4	5	8	7	6	1	2	6
5	6	6	8	1	6	4	7	3
4	6	2	3	9	7	8	5	1
1	3	7	5	2	8	6	4	9

ERRAZA

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

ABIZENAK.
TZ. 7. IOI, ETZIZ. 8. NITUEN. 9.
OPARI. 5. BINAKO. 6. PIKAK.
2. URATU. 3. IRRI. NIK. 4. LA.
GOITIK BEHERA. 1. SARBIDEA.
ASKI. ZINK.
DUNAK. TUN. 7. IRATZEN. 8.
BAIONA. 12. 5. IT. PAKETE. 6.
2. ARABIO. 3. RRR. IPINI. 4.
ESKER-ESKUIN. 1. SUIL. PIKA.

Véronique Leduc

GORRA, ETA HARRO



INTERPRETEEI ESKER ONA

“Entzule familia batetik nator, gorren %90aren gisara. Zazpi urtetan ohartu ziren nire gortasunaz. Lau maila daude: arina, ertaina, gogorra eta oso gogorra. Ni erdi aldean nago, soinu apalak entzuten ditut baina ez meheak; hots, bokalak bai baina ez kontsonanteak. Ezpainen irakurri eta suposizioak egiten ditut, gaiaren arabera, aldapa, harrapa ala Kanada erran duen asmatuz. Oso akigarria da. Ordu pare bat gehiago lo egin behar dut interpreterik gabe entzuleekin pasa badut eguna.”

“Entzumenak gidaturiko jendarte batean gara eta ezer ez dugu eskuragarri”

Gortasuna ukatzetik elkor identitateaz harro izaterainoko bidea egin du Véronique Leduc artista, militante eta unibertsitariak. Ez du bide erraza izan, barrenak inarrosi dizkio prozesuak eta guztia kontatzeko denbora hartu du. Leducen bidez, gorren errealitateaz ikasten dugu, baina batez ere gure jendarteaz, entzumenean oinarrituriko gure sistemaz. Hots, audismoaz, fonozentrismoaz eta entzule gisa ditugun pribilegioez.

 **JENOFA BERHOKOIRIGOIN**
 **NATHALIE SAINT-PIERRE**

Nola lotu zinen zeinu hizkuntzari?
 Berant ikasi dut, 2013an. Gure familiar ahozkoan dabilzan elkorrak eta zeinu hizkuntzan dabilzananak bereizi ohi ditugu, ahozkoan dabilzananak entzumen urrikoak direla erranez, hots, entzumena hain “gaizki” ez daukatena. Amaren begietan entzumen urrikoa nintzen, ez nuen zeinu hizkuntza ikasi beharrik. Entzuleen gisara jarduteari dio jendarteak balio handia bideratzen.

Ikasteari lotu zinen.
 Doktoretzan, Concordia unibertsitate anglofonoan jarraitzen nuen kurtso bat, baina ezer ez nuen ulertzen! Ordura arteko estrategiek ez zidaten balio. Ezpainen mugimenduek ez zuten balio, suposizioek ezta ere, tonalitate ezberdinak ziren. Paraleloki, gorren arteko topaketa batera gomitatu ninduten. Zeinu hizkuntzan zebiltzan, ni interpretearekin nintzen eta entzule bakar honek nirea itzultzen zien eta haiena itzultzen zidan. Deseroso sentitu nintzen. “Ez duzu estakururik, ikas ezazu”, erran

zidan batek. Aldaketa unea izan zen. *Coming-out* (armairutik ateratzea, ingelesez) bat izan zen, harrigarriki betidanik izandako identitatearena.

Eskerrak artea hor zenuela.

Prozesu honek guztia inarrosi zidan. Sendatu beharreko umea nintzen. Guztia entseatu zuten gurasoek, Mont Royal igo genuen pazko egunez, iguzkia esnatu aitzin, iturriko ur benedikatua belarrietan ezartze-ko. *C'est tombé à l'oreille d'un sourde* [Gor baten belarrietara iritsi da, euskaraz] komikia idazteak lagundu zidan mezu horretarik bereizten.

Alde politikoa du.

Gortza eta audismoa nozioak deskubritu nituen. Gortza edo *deafhood* nozioa 2003an plazaratu zuen Paddy Ladd ikerlariak, dimentsio patologikoa duen gortasunarekin ezberdintasuna egiteko. Existentzia ikuspegitik, kidetasuna azpimarratzen du gehiago, baina ez baitezpada alde boluntaristatik, baizik eta zapalduen aldean egotetik, istorioak modu be-



ARTEAN DAGOEN AUDISMOA DESERAIKITZEKO DEIA LUZATZEN DUEN MANIFESTUAREN IZENPETZAILE DA LEDUC.

rezian bizi arazten dizkigulako. Tesiaren galdera nuen: nola eraiki ditzakegu gure hausnarrekin arrastorik ez baldin badugu? Gogoe-ta gehienak ahozko hizkuntzetan idatzirikoak ditugu, usu entzuleen gogoetak izaki. Imajinatu euskaldunez idatziriko guztia frantsesez edota espainolez idatzia balitz? Ez luke funtzionatu, hizkuntzak egiten gaitu, toki bat ematen digu munduan.

Audismoaz hitz egin dezagun.

Entzuten dutenei eta hauen jardueri balio gehiago ematen dion sistema dugu. Bortizkeria anitz daude. Konplimentu gisa ongi mintzo naizela diotenean edota belarritako tresna berria kasik ez dela ageri zehazten didatenean, zer erran nahi du? Sendatu ala gorde beharrekoa dela.

Ez gara kontziente.

Elkor izaera osoki onartzen dutenek zeinu hizkuntzaz komunikatzen dute gehienetan. Aldarrien entzunarazteak erran nahi du hizkuntza berean gabil-tzala. Autoktono eta Kanadaren arte-

ko berradiskidetze prozesuan urratsak eman badira autoktono lider batzuk ingelesez edota frantsesez hitz egitea onartuko dutelako da. Gure kasuan ez dugu beti aukerarik eta ez dute zapal-tzaileek interpreteen pagatzea eraba-kiko. Beraz elkorroi dagokigu mezua entzuleei helaraztea, baina bide konple-xua dugu.

Ezinduak ez, baizik eta gutxiengo linguistikoa.

Elbarritasunaren perzpezioa aldatu da denboran zehar, baina orokorki ikus-pegia medikala da beti nagusi, desgaita-suna pertsonaren baitan dagoela dion ikuspegia. Alderantziz, urritasuna jen-darteak eragin mugetan dagoela dioen modelo soziala dugu. Entzumenak gi-daturiko jendarte batean gara eta ezer ez dugu eskuragarri. Elbarritua naiz koklea ezberdina dudalako? Ez badute hizkuntza mintzo, etorkinak elbarri-tuak dira? Guk ere gure hizkuntza eta kultura ditugu. Gure hizkuntza aitor-tua izanen den egunean, agian gehiago izango gara ikuspegi sozialetik elbarri-tu definitzen.

Manifestu bat idatzi duzue.

Fonozentrismoaren deseraikitzearena, dozena bat artisten artean idatzitakoa. 1989ean jada atera zuten *Deaf View Image Art* manifestua Washingtonen (AEB), baina esentzialista zitzaigun eta guk artearen munduan dagoen audismoa dese-raiki nahi genuen.

Musikaz bi hitz?

Musika musatik dator, inspiraziotik eta erritmotik, baina gure jendarte fonozentratuan soinuari mugatu dugu. Alta, erritmoa bisuala izan daiteke, bibrazioak ere baditu. Gorro harreman ezberdina dugu musikarekin, bibrazioak gozatzen ditugu. Musika sorkuntzan ere gara.

Azken mezu bat entzuleei?

Kontzientzia hartzetik hasten da guztia. Entzulea naiz eta pribilegioak ditut. Entzumenak dudala? Bale, zuria naizen gisara. Arrazismoa ez da bakarrik pertsona arrazializatuen kontua, zuritasunaz hitz egi-nez zaio arrazismoaren aurkako borrokan guztiei toki bat ematen. Kontzientzia har-tuz gero hitz egin dezakegu justizia sozia-laz eta idealean aliatu postura hartzeaz. ●



Maiatzak1: Bost eguneko zubia hartu du LAE sindikatuko liberatu batek



"Maiatzaren 1a asteazken ustel batean egokitzeak ez dauka ez hanka ez bururik", azaldu digu Igor Olerkin LAEko sindikalista liberatuak. "Ezin running egitera Pirinioetara joan, ezin manifa ondoren hiruzpalau ardo edan biharamunari beldurrik izan gabe... Bizikletan kilometrotxo batzuk egin ditzaket, Txorieneko nutrizionistaren errezeta-aren bat egin, Instagramera nire zaku-rraren argazki pare bat igo... baina hor-

tik aurrera, kia! Horregatik erabaki dut maiatzaren 1eko zubiari formakuntza-rako egun sindikalak gehitu eta Kubara etortzea. Autokarabana barkuan sartuta, hori bai, hoteletan lo egitea oso neoliberala da-eta. Gure enkargatua ere, PNVko potrozorri galanta bera, hemendik dabil. Zera, bihar Champions League-ko partida ikustera joango gara elkarrekin taberna batera. #PostAiete garaiak, badakizue... ●

SAREAN ARRANTZATUA

Zapa eta pusa!



Nire argudioak, txit gorena



"Ikusten? Arrazoia guk geneukan", adierazi dute sistema iraultzeko botoa eman ez dutenek eta botoa eman dutenek

Joan den igandeko Espainiako hauteskundeak emaitzak baloratzeko prentsaurreko bana egin dute abstentzioaren aldeko eragileek eta ezkerreko aukeraren batentzat botoa eskatu dutenek. Bi prentsaurrekoetako adierazpenek hitzez hitz gauza bera esaten dute, itxuraz planteamendu antagonikoak ziztuzten arren; eta biek baieztatu dute

euren aurreikuspenak bete direla, "ez beste horienak". Baieztapenok entzunga eta Espainiako erregimenaren eta kapitalismoaren amaiera berehala etorriko direla baloratuta, Beranduegiren kazetari bat Gasteizko kaleetara atera da jendearen iritzia jasotzera. Gauza bat ziurtatu dezakegu: San Prudentzio egunaren ajeak irabazi ditu bozak. ●

AZOKA.ARGIA.EUS

AZOKAN
SALGAI!

15€

4€ BIDALKETA GASTUAK



Hizkuntz
eskubide baten
urraketaz
informatzeagatik
epaituak

 #UtziArgiaBakean



Leurtzako urtegi inguruan

ANFIBIOAK eta NARRASTIAK EZAGUTZEKO TXANGOA



Biologoak gidari:

IÑAKI SANZ AZKUE
ANDER IZAGIRRE EGAÑA

Anfibio eta narrastietan adituak eta
Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak

Oharrak:

Ezinbestekoa da izena ematea.

Adin guztientzako egokia.

Amaiera atsedenlekuan emango zaio:
eraman etxetik bazkaria.

 **LEURTZAKO URTEGIA**
Informazio gunea

 **MAIATZAK 18**
10:30-14:00
Larunbata

 **IZEN-EMATEA**
Kopuru mugatua: 35 pertsona
argiak100urte@argia.eus

WWW.ARGIA.EUS

BABESLEAK: